

Elikadura trantsizioko prozesuak Ikaspenak eta iradokizunak



- **Elikadura**
trantsizioko
prozesuak
Ikaspenak eta
iradokizunak

Diseinua eta maketazioa
oncediez central de diseño, s.l.
Claudia Sánchez Orozco
Madril, 2024ko urria

Irudi-lizentzia
oncediez central de diseño, s.l.

Itzultzailea Iñigo Gallastegi

ISBN 978-84-19425-21-8

Finantzailea



Elikadura trantsizioko prozesuak. Ikaspenak eta iradokizunak.

2024 urria

Argitalpen honek AECID Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren dirulaguntza izan du. Argitalpenaren edukia Hegoaren eta Bidezko Elikaduraren erantzukizun eksklusiboa da eta ez du zertan AECIDen iritzia adierazi.

Koordinatzailea: Gema Celorio Díaz.

Editoreak



Justicia Alimentaria
C/ Floridablanca 66-72 · Local 5
08015 Barcelona
Tel. 93 423 70 31
Fax 93 423 18 95
info@justiciaalimentaria.org
<https://justiciaalimentaria.org>



Hegoa, Nazioarteko Lankidetzaren eta Garapenerako Buruzko Ikasketen Institutua
Zubiria Etxea. UPV/EHU
Lehendakari Agirre etorb., 83
48015 Bilbo
Tel. 94 601 70 91

Arabako Campuseko Biblioteka. UPV/EHU
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel. 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus
<https://www.hegoa.ehu.eus>

Programa



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa

Dokumentu hau Creative Commons lizentziarekin dago. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki partekatzea baldin eta egilea aitortzen bada eta merkataritza-xedeetarako erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo honetatik beste lan bat eratorri.

Lizentzia osoa, hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

ESKER ONAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu Bidezko Elikadurak eta Hegoak bultzatutako *Alimentar es educar* programan parte hartu duten ordekaritzetako kideei; hain zuzen ere, Bidezko Elikadurako adiskideei, Ikasleen Guraso Elkarteei [IGE] emandako bidelaguntzatik. Halaber, argitalpen honen azken zirriborroari egindako ekarpenak ere eskertu nahi dizkiegu.

Programak sei urte iraun ditu, eta urte horietan taldeak lan izugarria egin du. Hezkuntza komunitateko eragileei laguntza eman diete, prestakuntzak eta tailerrak egin dituzte, material eta baliabide pedagogikoak sortu dituzte, plataformetan eta lurralde-sareetan antolatu dira, tokiko eta estatu mailako topaketak bultzatu dituzte, bisitak egin dituzte, lekukotzak hurbildu dituzte, esperientziak partekatu dituzte, sentsibilizazioko eta eragin politikoko ekintzak egin dituzte... Hau da, besoz beso lan egin dute tartean sartutako eragile guztiekin [IGEak, familiak, irakasleak, ikasleak, catering enpresak, jantokiko eta sukaldeko langileak, hezitzaileak...] ikastetxeetako elikadura-trantsizioko prozesuei aurre egiteko; izan ere, prozesu horiek premiazko erronka bat dira.

Lan honek IGEEi eta haien antolakuntza egiturei [federazioak, konfederazioak eta CEAPA] bidelaguntza emateko esperientzia horretan egindako ikaspenik garrantzitsuenak jaso nahi ditu. Hala, ikaspen horiek beste testuinguru batzuetan elikadura-trantsizioko prozesuak sustatu nahi dituzten kolektiboentzat iradokitzaileak izatea espero dugu.

Hala, Bidezko Elikadurako lankide hauek egindako lana aintzat hartu nahi dugu: Erin McNulty eta Marta Barreira [Andaluzia], Lucía López eta Marta Martínez [Aragoi], Eneko Viñuela [Euskadi], Núria Llabrés [Balear Uharteak], Clara Mozas [Madril eta Gaztela eta Leon], Marta Ribó eta Doris Monrós [Valentziar Herria] eta Jordi Menéndez, Bidezko Elikaduraren Ipar Lankidetza Saileko arduraduna eta programaren koordinatzaile nagusia.

Halaber, Hegoako Amaia del Ríori eta Iris Murrillori ere eskerrak eman nahi dizkiegu. Haiek beste momentu batzuetan ere lagundu digute, eta, oraingoan, dokumentua irakurtzeko ahalegina egin dute eta ekarpen baliotsuak egin dituzte.

Eskerrik asko bereziki Sarai Fariñas [CERAI, Valentziar Herria] eta Diego Cebas [ACCEM, Valladolid] adiskideei [elikadura-trantsizioko prozesuak bultzatzeko interesa duten kolektiboen ordezkari izan dira], gida hau irakurtzeagatik, ekarpenak egiteagatik eta honetan jasotako ikaspenen interesa baloratzeagatik.

Horiei guztiei, eskerrik asko!

AURKIBIDEA

ORRIA

7	Esker Onak
13	0. Sarrera
17	1. Mundu globalizatu batean elikadura pentsatzea
22	1.1. Erabil dezakegun arau-esparrua
24	1.2. Bestelako elikadura-eredu baten eskaera kokatzeko ikuspegia
27	2. IGEei bidelaguntza ematea elikadura-trantsizioko prozesuetan
33	3. Aldaketa subjektu kritikoengandik eta herritar antolatuengandik pentsatzea
37	4. Ikaspenak berreskuratzea beste talde eta kolektibo batzuetara zabaltzeko estrategia gisa
41	5. Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida
42	5.1. Testuinguruen eta koiunturen garrantzia
46	5.2. Gure errealitateari aplikatutako diagnostikoak
51	5.3. Subjektuen inplikazioa. Kudeaketa eta antolakuntza
58	5.4. Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak
62	5.5. Prestakuntza, ezinbesteko estrategia
65	5.6. Eragin politikoa
68	5.7. Beste proiektu eta eragile batzuekin antolatzea
76	5.8. Trantsizioko prozesuetan beharrezkoak diren baliabideak eta tresnak
79	5.9. Elikadura trantsiziorako proposamen zehatzak
84	5.10. Elikadura trantsizioko adibideak erakusten dituzten esperientziak
89	6. Sustatutako aldaketen iraupena bermatzeko mekanismoak
93	7. Puntu eta jarrai
97	8. Erreferentzia bibliografikoak
103	9. Eranskinak
103	9.1. Sistematizazio fitxa
111	9.2. Elikadura Baliabideak



ZERO
Sarrera

ZERO
Sarrera**0. SARRERA**

Alimentar es educar programaren jardueren barruan aurkeztuko dugu dokumentu honen zentzua. Halaber, hezkuntza formalaren esparrura mugatutako esperientziatik ateratako ikaspenek izan dezaketen interesa azpimarratuko dugu, hura elikadura-trantsizioarekin konprometitutako beste gizarte eragile batzuk dituzten esparruetan aplikatzeko. Esperientzia horretan familia antolatuak izango ditugu eragile sustatzaile gisa.

*Alimentar es educar*¹ ikastetxei eta IGEei bidelaguntza emateko programa bat da. Programak elikadura-eredu bidezkoak, osasungarriak eta iraunkorrak lortzeko trantsizioko prozesuan lagundu nahi die, eskola-jardueran aurkitzen diren elikadura-eremu guztietan. Esku artean duzun lan honek esperientzia horretatik ateratako ikaspenak biltzen ditu.

Azpimarratu beharra dago, ikastetxeekin, familiekin² eta hezkuntza eta gizarte komunitateko gainontzeko eragileekin egindako lan eta lankidetzaren prozesu hori hezkuntza publikoaren esparruan garatu dela. Esparru hori berariaz aukeratu da, hezkuntza publikoa baita pertsona guztien hezkuntza eskubidea eta elikadura eskubidea bermatzen duen bakarra, erabiltzaileen gizarte, ekonomia edo kultura baldintzak alde batera utzita. Guztion onera orientatuta dago eta eskola inklusiboak, demokratikoak eta hezkideak sustatzeko konpromisoa du. Horrek, bada, trantsizio ekosozialeko eta feministako prozesuak hartzeko ezinbesteko agertokia eskaintzen du. Izan ere, horrelako prozesuetan kokatzen dugu bestelako elikadura eredu agroekologiko, bidezko eta iraunkor baten ezarpena.

Ildo horretan ere, Bidezko Elikaduran eta Hegoan eskubide gisa ulertzen dugu elikadura –oro har, herritar guztiontzat, eta, bereziki, eskolako ikasleentzat–, eta inoiz ez negoziatzen gisa. Defendatzen ditugu, hortaz, eskolako menua, eskubide unibertsal eta doako gisa, eta kudeaketa publikoa, zerbitzu publikoaren eta guztion onaren helburuen adierazpen gisa. Baina ez dugu ahaztu behar eskola jantokia, garrantzitsua bada ere, ez dela elikadura-harremanak hartzen dituen gune bakarra. Gosariak, askariak, ospakizunak, festak, irteerak eta txangoak ere elikadura-eredu jakin bat ulertzeko eta praktikatzeko aukerak adierazten dituzten momentuak dira.

Beraz, familiak eta haien antolakuntza-egiturak laguntzeko esperientzian, ikuspegi holistikoa batetik landu nahi izan dugu elikadura; hura gune horietatik elikadura-hezkuntzako esparru batera eramateko. Horretarako, bada, ezinbestekotzat jotzen dugu hura curriculumean aintzat hartzea.

Alabaina, helburu hori lortu bitartean, eskubide hori bermatzeko eta elikaduraren merkantilizazioari aurre egiteko urratsak eman behar ditugu, hala nola honako hauek: menuetan aldaketak egin, gertuko eta sasoiko elikagai ekologikoak sartzeko; kalitatea hobetzeko eragin, nutrizioari eta iraunkortasunari dagokienez; ekonomia sozial eta solidarioari lotutako enpresa txiki eta ertainak hobetsi; egoera ahulenean dauden familien elikadura eskubidea bermatzeko beka-sistema bat sortu...

¹ Ikusi: <https://alimentareseducar.org>

² Testuan zehar “famiilik” hitza erabiliko dugu, sinplifikatze aldera, baina argitu nahi dugu ikuspegi inklusibo batetik erabiltzen dugula, izan daitezkeen familia-egitura guztiak aintzat hartuz: adopziozkoak, ama bakarrekoak, aita bakarrekoak, guraso bikoak, aita bi edo ama bikoak, berrosatuak, eta abar.

ZERO
Sarrera

Horregatik guztiagatik, familiei zuzendutako sentsibilizazio eta prestakuntza estrategiak garatzean zentratu gara. Izan ere, gure ustez, hori ezinbestekoa da familiek eskola-elikaduran parte hartzeko eskubidea erabiltzeko aukera izan dezaten.

Prozesu horietan egindako hausnarketak ikuspegi zabal batetik lantzen du elikadurari buruzko eztabaida. Hala, haurrei eskolan ematen zaien elikaduraren inguruko kezka gain, elikaduraren gaia hezkuntza-proiektuen bitartez eta curriculumari lotuta lantzeko interesa aurkitzen dugu.

Ikastetxeek funtsezko eginkizuna dute haurrengan elikadura ohitura egokiak garatzeko, baita haiekin elikadura osasungarri, bidezko eta iraunkor batekin zerikusia duen guztia lantzeko ere.

IGEei eta haien antolakuntza egiturei [federazioak, konfederazioak eta CEAPA ikasleen gurasoen elkarteak Espainiako konfederazioa] bidelaguntza emateko esperientzia bultzatu duen ideia nagusi bat izan da elikadura-eremu horiek hezkuntza-eremuak direla, eta horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa dela elikadura ikuspegi pedagogiko batetik lantzea.

Hala, egiaztatu egin dugu honako hauetarako interesa dagoela: eskolan dauden elikadura-eremu guztiei eman beharreko orientazioaren gainean hausnarketa zabala sustatzeko; hezkuntza-komunitateko eragileek duten eginkizuna aztertze eta indartzeko; eta elikadura eskubidea eta elikadura burujabetza³ hezkuntza-proiektuetan eta curriculum garapenean txertatzen laguntzeko.

Lan-esparru hura elkarri lotutako hainbat faktore, eragile eta eremuren gaineko ikuspegi zabal eta sistemiko batetik abiatzen da. Kontuan hartzen du, aldi berean, eragileek beren eginkizunak garatzeko dituzten berezko dinamikak ezagutzea; izan ere, horiek kontuan hartu behar ditugu elikadura-trantsizioko prozesuak lagundu nahi baditugu.

Dokumentu honetan, beste kolektibo antolatu batzuentzat [auzo elkarteak, aisialdiko taldeak, sindikatuak...] erabilgarriak izan daitezkeen ikaspenak jasotzen ditugu. Hain zuzen, ikaspen horiek lagungarriak izan daitezkeelako, elikadura-trantsizioko prozesuak martxan jarri ahal izateko, eta beste erakunde batzuek beste leku batzuetan abiatutako antzeko esperientzietatik ikasteko.

Horretarako, informazio hori jasotzen dugun atalean, elikadura-trantsizioko edozein prozesuren elementu estrategikoenak aurkezten ditugu eta horietako bakoitzean ikaspenik garrantzitsuenak berreskuratzen ditugu. Ikaspen horiek beste eragile batzuentzat erabilgarria den modu batean aurkeztu nahi ditugu, eta beren testuinguruetan elikadura-trantsizioko prozesu berriak bultzatzeko konpromisoa sustatu nahi dugu.

³ Ikus elikadura burujabetzaren gure definizioa hemen:

<https://redalimentacion.org/eu/gure-ikuspegiak/elikadura-subirannotasuna/>



BAT

Mundu
globalizatu
batean elikadura
pentsatzea

BAT

Mundu globalizatu batean
elikadura pentsatzea

1. MUNDU GLOBALIZATU BATEAN ELIKADURA PENTSATZEA

Gaur egungo elikadura-sistemaren funtzionamenduaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu, esparru zabalago baten barruan, baita horrek pertsonengan, komunitateetan eta planetan eragiten dituen ondorio kritikoenak ere. Horrek ereduaren eutsiezintasuna eta elikadura-trantsizioko prozesuak abiatzeko premia larria ulertzeko estrategia bat izan nahi du; izan ere, prozesu horiek bizitzaren iraunkortasuna sustatzeko eta galdutako oreka ekologikoak leheneratzeko helburua izango dute.

Hau idazteko momentuan, urrun ikusten dugu COVID-19aren ondorioz bizi izan genuen esperientzia. Hala ere, interesgarria izan daiteke pandemia erreferentzia gisa hartzea horrelako fenomeno batek gure bizitzan eragindako ondorioak aztertzeko, eta horrek gure eredu politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaleri buruz zer esaten digun ikusteko ere.

COVID-19aren agerpenak eragindako krisiak eta ondorengoko pandemiak agerian utzi zituzten globalizazioaren garai honetan nagusi den garapen, ekoizpen eta kontsumo ereduaren arriskuak. Hala, bizitzaren iraunkortasuna erdigunean kokatzen dituzten eruedetara igaro nahi badugu hausnarketa sakona bultzatu behar dugu oraingo eredu horren inguruan. Pandemiak, beraz, agerian utzi zuen gaur egungo elikadura-sistemaren ahultasuna eta kalteberatasuna —elikadura-krisiare froga gehiago behar baditugu—, baita haren oinarrian dauden desparekotasunak ere, sistemak berak areagotzen dituena.

Izan ere, krisi ekologiko sakonak [ikus 1. irudia] eta etengabeko hazkundean eta irabazi handienak kostu txikienean bilatzean oinarritutako ekonomia-ereduaren iraupenak nabarmen aldatzen dituzte ekosistemen orekarako, bioaniztasuna babesteko eta bizitzaren erreproduktzioarako baldintza egokiak.



◀ **1. Irudia**
Krisi ekologikoa.

Iturria: NBEK 2016an aurkeztutako infografía, 2023ko datuekin eguneratua.

BATMundu globalizatu batean
elikadura pentsatzea

Askotariko krisien azterketa xehatua egin gabe eta elikaduraren problematikari erreparatuz, gaur eta etorkizunera begira proiektatu nahi dugun ekoizpen-banaketa-kontsumo ereduari buruz hausnartzeko premia dago, bizitza duinak, bidezkoak eta iraunkorrak bermatzeko.

Gaur egungo elikadura-eredua klima aldaketa eragiten duen faktore nagusietako bat da, eta bizi dugun krisi ekologiko larria sakontzen du. Elikagaien korporazio handiek eta multinazionalak pertsonen osasuna eta gizabanakoen, komunitateen eta lurraldeen eskubideak larriki kaltetzen dituen elikadura mota zabaltzen dute.

Beren ondorio zuzenak [berotegi efektuko gasen isurketa gero eta handiagoak; ur kontsumo neurrigabea nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategi intentsiboetan; energia fosilen erabilera; deforestazioa; airearen, lurzoruen, akuiferoen, ibaien eta ozeanoen kutsadura...] zein ondorio konplexuago batzuk [bioaniztasuna galtzea; lurrez jabetzea; enpresa transnazionalen zigorgabetasuna; herritarren lekualdatze behartuak; eskubideen urraketak; landa eremuaren despopulazioa eta landa eremuko biztanleriaren maskulinizazioa; jakintza baserritarrak galtzea...] aztertzen baditugu, ikus dezakegu horien guztien atzean agroindustria eta agronegozioa daudela, beren garraio, merkaturatze, banaketa eta kontsumo zikloarekin.

Hala, gizarte desparekotasuna betikotzen eta sakontzen duen eredu bat osatzen da. Horretan hainbat faktore gurutzatzen dira, eta, azken finean, eredu horrek biztanleriaren sektore askok elikadura nahikoa, nutritibo, osasungarria eta kalitatezkoa lortzeko zailtasuna izatea dakar.

Elikadura-sistema globalizatuak eta merkantilizatuak produktibitate handiena eta irabazirik handienak lortu nahi ditu elikagaien ekoizpen, eraldaketa, banaketa, merkaturatze eta kontsumo kate globalean. Elikadura kate horretan, bada, generoko desparekotasunen eragina atzematen da. Izan ere, emakumeek prozesu guztietan parte hartzen dute, baina beren lanaren balioa gutxiesten da eta lan baldintza okerragoak izaten dituzte [eta horiei aurre egiten diete, eutsi egiten dute eta salatzen dituzte].

Ekoizpena. Nekazaritzan eta abeltzaintzan aplikatutako eredu industrialaren ondorioz, ekoizpen-eredu intentsiboa dugu, eta horrek, besteak beste, ur kontsumo handia du; errendimendu handiko haziak behar ditu; pestizida eta ongari kimikoak erabiltzen ditu; landa eremuaren mekanizazio jasanezina eragiten du eta eskulana kanporatzen duten aurrerapen teknologikoak sartzen ditu pixkanaka. Horren ondorioz, landa-eremuetako langabeziak gora egiten du, eta jendeak gero eta dentsitate handiagoa duten hirietara alde egiten du. Kasu askotan, gainera, langileen eskubideak urratzen dituzten lan baldintza prekarioak aurkitzen dira, kontraturik gabeko enpleguekin, legez onartutakoa gainditzen duten lanaldiekin eta soldata oso baxuekin. Emakumeak eta kalteberatasun egoeran dauden pertsonak dira ekoizpen industrialaren lan eredu horren kaltetu nagusiak.

BATMundu globalizatu batean
elikadura pentsatzea

Eraldaketa. Elikagaien eraldaketa-prozesuen industrializazioak, oro har, elikadura-segurtasuneko arauak errespetatzen ditu; baina askotariko elikagai ultraprozesatuak sartzen ditu merkatuan. Horrek, bada, dietak okerragotzen eta gaixotasunak eragiten ditu. Elikadura katearen fase horretan emakumeak erabili ohi dituzte, soldata baxuagoak ordainduta. Jakina, horrek soldata arrakala eta desperekotasunak larriagotzen ditu.

Banaketa. Merkatu globalizatuak urteko edozein sasoitan produktu mota guztiak izateko aukera ematen du, horien jatorria kontuan hartu gabe. Eta sistemak horien kontsumoarekiko menpekotasun soziala eragin du eskari handia bermatzeko. Beraz, elikagaiak mundu osoan zehar banatzeko eredu bat garatu behar izan du, eta ahal dituen garraio mota guztiak erabiltzen ditu [lurrekoa, itsasokoa, airekoa], baina ez du kontuan hartzen horiek eragiten duten ingurumen inpaktua. Izan ere, elikagai kilometrikoek eragin handia dute klima aldaketan, energia kontsumo handiak eta CO₂ isurketa handiak baitituzte.

Merkaturatzea. Elikadura katearen hurrengo maila elikagaien merkaturatzeak osatzen du, normalean, handizkari handien bitartez. Azalera handiek produktu eta marka anitz jartzen dituzte kontsumitzaileen eskura, baina itxuraz bakarrik; izan ere, marka horien genealogiari jarraitzen diogunean ikusten dugu elikagaien enpresa transnazional gutxiren eskuan kontzentratzen direla. Horrek, bada, elikadura kate osoan eragiten du. Hipermerkatu handietan erosteak honako ondorio hauek ekartzen ditu: plastikozko ontzien gehiegizko erabilera, beharrezkoak ez diren produktuak erostea, publizitateak eragindako kontsumo erabakiak, etiketatze ez-nahikoa eta/edo iruzurtia, elikagaiak alferrik galtzea, hondakinak handitzea... Inpaktu horiek are gehiago dira azalera handiek tokiko merkatuan eta merkataritzan eta ekoizle txikiengan eragiten dituzten ondorioak kontuan hartzen baditugu. Izan ere, ondorio horien artean, ingurumena eta lurraldea errespetatzen dituzten praktika baserritarrak galtzea aurkitzen dugu. Gainera, merkataritza-azalera handi horiek emakumeak erabiltzen dituzte batez ere kualifikaziorik gabeko eta soldata gutxiko lanetan; gizonak, aldiz, zuzendaritzako eta erantzukizuneko karguak izaten dituzte. Zorionez, beste banaketa-eredu bidezkoago eta jasangarriago batzuk daude. Denda txikien eredian, jabeen % 25 emakumeak dira, eta enplegatuei dagokienez, oro har, gizonen baldintza berdinetan lan egiten dute.

Kontsumoa. Nekazaritza eta elikadura eredura aplikatutako logika kapitalistako sistema horrek⁴ [hiper]kontsumoan du bere zentro neuralgikoa. Elikagaien kontsumoa iraunkortasun edo justizia iragazkietatik ez pasatzea da helburua. Aitzitik, sistemak kontsumo ez oso kontzientea edo batere ez kontzientea sustatzen du, publizitatearen eragin handia duena. Ondorioz, elikadura-hezkuntza eskasa eta kontsumo arduratsu eta konprometitutik oso urrun dagoen jokabidea aurkitzen dugu. Izan ere, kontsumo arduratsu eta konprometitu horrek sasoiko eta gertuko elikagai fresko eta ekologikoetan oinarritzen da. Hala, gure osasuna hobetzeaz gain, baserritarrak ahalduz eta landa eremuak biziberritzen laguntzen du, eta ardurakidetzak eskatzen du elikadurari lotutako lanak egiteko. Elikagaien kontsumoarekin lotutako eginkizunetan, bada, generoko arrakala handia dago, bai emakumeek eta gizonak

⁴ Logika kapitalistaz ari garenean honako hauei buruz ari gara, besteak beste: kapitala metatzeko praktikak, hazkunde ekonomiko mugagabea, balibide naturalen eta pertsonen [hiper]esplotazioa, merkatuaren zentraltasuna ekoizpena eta bizitza arautzeko... Hau da, irabaziak eta onurak gizarte eta ingurumen justiziaren aurretik hartzen duten jarduerak...

BATMundu globalizatu batean
elikadura pentsatzea

⁵ Elikagaiak galtzea eta xahutzea prebenitzeko Lege Proiektuak horren garrantzia erakusten du. Hura 2024ko urtarrilaren 9an onartu zuen Ministroen Kontseiluak, eta parlamentuan tramitatzeko zain dago.

⁶ FAO, Nekazaritza Garapenerako Nazioarteko Funtza, OME, Elikagaien Mundu Programa eta UNICEF [2023]. <https://doi.org/10.4060/cc3017es>; Lipinski, Brian [2023]. <https://champions123.org/sites/default/files/2023-10/2023%20Champions%20Progress%20Report.pdf>

horretan ematen duten denborari dagokionez [% 45 gehiago emakumeen kasuan], bai familiaren eguneroko elikadura planifikatzeak eta antolatzeak dakarren karga mentalari dagokionez, hori ere emakumeen kargu uzten baita erabat ez ikusian den modu batean. Zenbat eta etxeagoa, freskoagoa eta osasungarriagoa izan elikadura, orduan eta handiagoa da arrakala hori.

Hondakinak, elikagaiak alferrik galtzea. Elikagaien industriak hondakin ugari sortzen ditu –horietako batzuk arriskutsuak– ekoizpen, eraldaketa, biltegitratze, garraiatze eta banaketa prozesuetan; eta, horien bitartez, ingurumen eta gizarte inpaktu handiak eragiten ditu. Beste alde batetik, elikagaiak alferrik galtzea ere arazo handia da⁵, eta elikadura-kate osoan zehar gertatzen da. Hain zuzen, etxeetan ere elikagaiak galtzen dira. FAO Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundearen arabera, munduan gizakien kontsumorako ekoiztiko elikagaien herena galdu eta xahutu egiten dira, hau da, 1.700 milioi tona urtean⁶.

Ekoizpen modu horien ingurumen inpaktua erabat gaiztoa eta eutsiezina da; eta, gainera, gizarte eta lurralde inpaktuak ere ditugu, hala nola desparekotasunak handitzea, landa eremua hustea eta bertan emakume gutxi bititzea, baserriarrak lekuz aldatzera behartzea, gehiegizko estraktibismoa...

Gaur egungo elikadura-ereduaren aldaketa globala sustatu behar dugu, erresilienteagoa eta bidezkoagoa den sistema baten alde [ikus 2. irudia]. Sistema horren herritar guztien beharrei erantzuteko gai izan beharko du, horien kultura eta ekoizpen-modu agroekologikoak errespetatu beharko ditu eta, ahal den neurrian, ekosistemen eta lurraldeen gaineko inpaktuak leheneratu beharko ditu.

2. Irudia ▶

Zer da elikadura-sistema erresiliente bat?

Iturria: Egilea.



BAT

Mundu globalizatu batean
elikedura pentsatzea

Elikadura-trantsizio horrek aipatu ditugun prozesu guztiak hartu behar ditu derrigorrez; eta dieta osasungarriagoa eta, ondorioz, maila indibidual eta kolektiboko kontsumo-ohiturak osasungarriagoak ere ekarri beharko ditu. Beraz, sasoiko eta gertuko elikagai freskoen eta ekologikoen kontsumoa lehenetsi beharko du. Dokumentu honen edukia alderdi horietan zentratzen da.

BATMundu globalizatu batean
elikadura pentsatzea**1.1. ERABIL DEZAKEGUN ARAU-ESPARRUA**

Nazioarteko testuinguruan, **2030 Agenda** dugu. Hura, bere muga eta kontraesan guztiekin ere, elikadura-trantsizioko prozesuak sustatzeko premia legitimatzen duen jarduera-esparru bat da. Eta goseari, malnutrizioari eta elikadura txarrarekin lotutako gaixotasunei aurre egiteko apustu bat izateaz gain, gizarteen ongizatean eta gizarte eta ingurumen iraunkortasunean eragiten duten alderdi guztiak birpentsatzeko estrategia bat ere bada. Izan ere, Garapen Iraunkorrerako Helburuak [GIH] –hamazazpi guztira– beharrezkoa den aldaketarekin lotuta daude; hain zuzen ere, agronegozioaren gaur egungo nekazaritza eta elikadura eredutik komunitateak, lurraldeak eta pertsonen eta planetaren eskubideak errespetatzen dituen eredu agroekologikora igarotzeko beharrezkoa den aldaketa horrekin.

Halaber, Estatu eta Europa mailako esparru bat dugu horren alde. Esate baterako:

Milango Elikadura Politika Hiritarrari buruzko Hitzarmena [2015] [MUFPP, ingelesezko siglen arabera], FAOk babestuta. Gaur egungo testuinguru kritikoa, urbanizazio azeleratuak⁷ eragiten duen ekonomia, gizarte eta ingurumen inpaktuaren gaineko kezka ondoz egin zen adierazpen hura. Hitzarmenak klima aldaketari aurre egiteko erronkari erantzun nahi dio. Haren helburua da “elikadura-sistema iraunkorrak, inklusiboak, erresilienteak, seguruak eta dibertsifikatuak garatzea, pertsona guztientzat elikagai seguruak eta eskuragarriak bermatzeko eskubideetan oinarritutako jarduera-esparru batean”. Nolabait, hitzarmenari borondatez atxiki zaizkion hiriek honako konpromiso hau hartzen dute: elikadura nutritiboa eta osasungarria komunitate osoarentzat eskuragarri dela bermatzen duten politika publikoak sustatzea. Halaber, eredu agroekologiko eta iraunkorretan oinarritutako elikadura-sistemak garatzeko prozesuan aurrera egiteko konpromisoa ere hartzen dute. Gaur arte, mundu osoko 200 hirik baino gehiagok sinatu dute hitzarmena. Horietatik hogeita hamar bat Espainiako Estatutan daude eta horietako gehienek **Agroekologiaren aldeko Udalerrien Sarean** [lehen, Agroekologiaren aldeko Hirien Sarea] parte hartzen dute.

“**Baserritik mahaira**” **estrategia** [Farm to Fork Strategy]. Europako Batzordeak 2020ko maiatzean aurkeztu zuen estrategia hori, eta **Europako Itun Berdearen** esparruko ekimen nagusietako bat da. Haren helburua da Europar Batasunean indarrean dagoen elikadura-eredutik eredu iraunkor batera igarotzea da, gaurtik 2050era bitartean, hain zuzen, neutraltasun klimatikoa lortzen lagunduko duen eredu batera.

Ez dugu ahaztu behar elikadura segurtasuna eta elikagaiak kaltegarri ez izatea lehentasuna direla. Bestela, honako hauek dira estrategiaren helburuak:

- Elikagai eskuragarri eta nutritibo nahikoak bermatzea, planetaren mugak gainditu gabe.
- Plagiziden eta ongarrien erabilera eta antimikrobianoen salmenta erdira murriztea.
- Nekazaritza ekologikora bideratutako lur azalera handitzea.
- Elikagaien kontsumo eta dieta osasungarriak eta jasangarriagoak sustatzea.

⁷ Gaur egun, munduko biztanleen % 55 hirietan bizi dira, eta hemendik 30 urtera % 70 izango direla aurreikusten da [FAO eta Prosalus, 2020].

BAT

Mundu globalizatu batean elikadura pentsatzea

- Elikagaien galtzea eta xahutzea murriztea.
- Elikagaien hornikuntza-kateko iruzurraren aurka borrokatzea.
- Animalien ongizatea hobetzea.

Hiri edo autonomia erkidego jakinetarako elikadura-estrategiak zehazten dituzten beste araudi batzuk ere daude, hainbat mailatan. Kasu askotan, araudi horiek beste politika batzuekin bat egiten dute, eta horiek osatzen edo barnean hartzen dituzte. Ezinbestekoa da politika horiei buruzko informazio guztia izatea, lurralde guztietan eta estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko mailan.

Eredu agroekologikoetara igarotzeko prozesuak bultzatzeko, horrelako araudiak berme eta aukera bat dira. Betiere, horien garapen eta aplikazio maila desparekoa izan daitekeela kontuan hartuta, eta jakinda, lagungarriak diren arren, ez dutela aldaketa edo eraldaketa berez bermatzen.

Elikadura agenda politikoan dago, batzuetan baliabideekin, finantziarioekin eta ekintza zehatzekin, eta, beste batzuetan, benetako konpromisorik gabe, edota lan honen oinarrian dagoen genero ikuspegidun elikadura burujabetzaren ereduaren aurkako politikekin ere. Esan dezakegu, beraz, araudiak laguntzen duela, baina jakin behar dugu eragin politikoak, mobilizazioa eta gizarte eragileen konpromisoa ezinbesteko dela, maiz erresistentzia handiei aurre egin behar badiete ere.

BAT


Mundu globalizatu batean
elikadura pentsatzea

**1.2. BESTELAKO ELIKADURA-EREDU BATEN ESKAERA KOKATZEKO
IKUSPEGIA**

Ikuspegi ekofeminista eta interseksionala duen elikadura burujabetza alternatiba estrategikoa da, gizarte aldaketarako, ekitatea eraikitzeko, eta ekoizpen eta kontsumo sistema iraunkorragoa, ekologikoagoa, hurbilagoa, bidezkoagoa eta ekitatiboagoa abian jartzeko.

Esparru ezin hobe da garatzen ari garen elikadura-trantsizioko prozesuei zentzua emateko, eta hemendik aurrera garatuko direnak bultzatzeko ere. Elikadura burujabetzaren aldeko mugimenduak, bestelako elikadura-eredu baten euskarri gisa, honako aldarrikapen hauek jasotzen ditu:

- Herriek elikagai nutritiboak eta kulturalki egokiak, eskuragarriak, modu iraunkor eta ekologikoan ekoitziak edukitzeko duten eskubidea, eta beren elikadura eta ekoizpen sistema erabakitzeko eskubidea.
- Lurra, lurraldeak, ura, haziak, abereak eta bioaniztasuna eskuratzeko eta kudeatzeko eskubideak, horiek elikagaiak ekoizten dituzten pertsonen eskuetan egon daitezen.
- Elikagaiak ekoizten, banatzen eta kontsumitzen dituzten pertsonak elikadura-sistemaren eta elikadura-politiken erdigunean kokatzea, merkatuen eta enpresen eskakizunen gainetik.
- Ingurumen, gizarte eta ekonomia iraunkortasunean oinarritutako elikagaien ekoizpena, banaketa eta kontsumoa.
- Ikuspegi ekofeminista, interdependentzia eta ekodependentzia nabarmentzeko, bizitza eta pertsonak merkatuaren interesen gainetik jartzeko.
- Emakumeek elikaduran duten eginkizuna aintzat hartzea, eta horien baldintzak eta egoera hobetzea; hau da, lurraren jabe izateko eskubidea aitortzea, soldata arrakalarekin amaitzea, lan-baldintza duinak bermatzea, familiaren elikaduran ardurakidetza sustatzea.
- Gizarte-harreman berriak, zapalkuntzarik gabe eta emakumeen eta gizonen, herrien, talde etnikoen, gizarte-klaseen eta belaunaldien arteko desparekotasunik gabe.
- Merkataritza gardena, diru-sarrera duinak, norik bere elikadura eta nutrizioa kontrolatzeko eskubideak.
- Tokiko eta nazio mailako ekonomiei lehentasuna ematea.



BI

IGEei bidelaguntza
ematea elikadura-
trantsizioko
prozesuetan

BI

IGEEi bidelaguntza ematea
elikedura-trantsizioko
prozesuetan

2. IGEEI BIDELAGUNTZA EMATEA ELIKADURA-TRANTSIZIOKO PROZESUETAN

Gure programaren zentzia eta irismena deskribatuko dugu –inplikaturako lurraldeak, IGEEen eta haien antolakuntza egituren eginkizuna...–; “elikedura-trantsizioa” zer den argituko dugu, eta kontzeptu horretan sartzen diren prozesuek izan ditzaketen irismen desberdinak –aldaketa txikietatik hasi eta eragin handiko eraldaketa integraletara–. Bidezko Elikadurako eta Hegoako hezkuntza taldeek egiten dituzten bidelaguntza lanak aurkeztuko ditugu, baita horietan sartzen diren esku-hartzeak ere.

Dokumentu honetan lantzen dugu prozesua *Alimentar es educar*, programaren parte da. Programa Bidezko Elikadurak eta Hegoak garatzen dute eta AECIDek [Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia] finantzatzen du. Hain zuzen, eskoletako elikedura-egoera ezagutzera bideratzen den gizarte eta hezkuntza ekimen bat da, elikagaien kontsumo osasungarriago eta iraunkorrako baten aldeko eraldaketak sustatzeko helburua duena.

Beraz, elikedura-trantsizioaz ari garenean, bi prozesuri buruz ari gara, funtsean. Alde batetik, gaur egungo elikedura-ereduak gure osasunean eta bizitzaren eta planetaren iraunkortasunean dituen ondorio larrien inguruan hezkuntza-komunitatea kontzientziatzen laguntzen duen prozesua. Kontzientzia hartzearen bitartez, hezkuntza-komunitatearen konpromisoa lortu nahi du, ikastetxeetan beste elikedura-eredu bat pixkanaka ezartzeko, elikedura burujabetzaren printzipioekin bat datorrena. Bestetik, ikastetxeetako elikedura-eremuetan aldaketak –eskala txikikoak zein handikoak– egiteko ekintza zehatzak planifikatzeko prozesua dugu, bestelako elikedura-eredu horretarako bidean aurrera egiteko helburuz.

Programarekin, beraz, familien inplikazioa bilatzen dugu, haien antolakuntza-egituren bitartez [IGEak, federazioak, konfederazioak...]; eta hezkuntza komunitate osoarena ere, lurraldeko gizarte eragileen eta ekoizleen laguntzaz. Hori guztia, ekintza pedagogiko zabal baten barruan, elikedura osasungarriarekin eta iraunkorarekin eta gizarte eta ingurumen justiziarekin konprometitutako herritartasun aktiboa sustatzeko.

Hala, azken 6 urteotan programak bidelaguntza eman die sare publikoko ikastetxeetako IGEEi eta haien antolakuntza-egiturei. *Alimentar es educar* ekimena sei autonomia erkidego hauetan garatu da: Andaluzia, Aragoi, Euskadi, Balear Uharteak, Madril, Valentziar Herria, baina beste lurralde batzuetan ere ekintza puntualak izan dira. Halaber, estatu mailako lankidetzaz-esparru bat ere ezarri da CEAParen bitartez. Programaren esparruan garatutako ekintzat ere askotarikoak izan dira. Horietako batzuk azpimarratuko ditugu.

Diagnostikoak. Parte hartzeko **diagnostikoak** egitea funtsezko lehenengo urrats bat da ikastetxe bakoitzaren egoera bere testuinguruan ezagutu ahal izateko. Ikasketa diagnostikoen bitartez, eskola umeen eta familien beharrak zeintzuk diren detekta daiteke elikadurari dagokionez. Halaber, ikastetxean gertatzen diren elikedura-interakzio guztiak ere identifikatzen dira, eta horien non gertatzen diren [jantokia, jolastokia...].

BIIGEei bidelaguntza ematea
elikedura-trantsizioko
prozesuetan

Interakzio horietan parte hartzen duten eragile guztiak erregistratzen dira, eta horietako bakoitzari dagozkion eginkizunak ere. Lehentasun-eskala bat ezartzen da, premiazkoagoak diren eraldaketei eta egingarriagoak diren horiei dagokienez. Horren guztiaren ondorioz, diagnostikoak ezinbesteko tresna dira programaren esparruan egiten den bidelaguntza lanari zentzua emateko.

Sentsibilizazioa. **Sentsibilizazio** jardueri esker, elikaduraren gaia ikuspegi integral batetik lantzearen garrantzia azpimarratzen dugu, ez soilik osasunari dagokienez, baizik eta beren gizarte eta ingurumen eraginei dagokienez ere. Hala, hezkuntza komunitateak trantsizio horren zergatia ulertzeko aukera gehiago ditu, eta hortaz, elikedura bidezko, osasungarri, gertuko, sasoiko eta iraunkor baten alde egiteko aukera gehiago ere. Jarduera horien –hitzaldiak, tailerrak, bisitak, erakusketak...– atzean dauden estrategiak eta edukiak parte hartu duen talde bakoitzaren interes eta beharretara moldatu dira: familiak, sukaldeko langileak, jantokiko hezitzaileak, irakasleak, catering enpresak...

Prestakuntza. Parte hartzen duten eragile guztien gaitasunak indartzera bideratutako **prestakuntzaz** ari gara. Estrategia horren parte gisa hainbat familia eskola garatu dira, eta horiek aurrez aurreko zein online ikastaroen bitartez gauzatu dira. Hala, edukiak eta metodologiak eragileen ezaugarrietara moldatu dira beti, eta formatzaile talde propioak izan dituzte, saio jakin batzuetan dietetika eta nutrizio arloko adituen laguntzarekin ere. Prestakuntza “elikedura txarraren” inpaktuak landuz abiatzen da, horrek hainbat gaixotasun eta osasun publikoko beste arazo batzuk eragiten baititu. Halaber, gizarte desparekotasunen eta gizarte eta ingurumen krisiaren atzean dauden kausak sakonago ulertzen laguntzen du. Ikuspegi orokor horretatik beste elikedura-eredu batzuetara igarotzeko premia planteatzean da, elikaduraren kalitatea hobetzeko eta beste ekoizpen ohitura –agroekologikoak– eta kontsumo ohitura –elikagai osasungarriak, nutritiboak, sasoikoak, gertukoak...– batzuk sustatzeko, gure elikaduraren arloko erabakiak gidatzeko estrategia gisa. Aipatutako gako horiek lantzen ditu prestakuntzak, gizartearekin eta ingurumenarekin konprometitutako elikedura osasungarria lortzeko, etxean zein etxez kanpo, ikastetxeetan zein ikastetxeetatik kanpo. Halaber, elikadurari eta zaintzei lotutako lanen ardurakidetzat landuko dugu; eremu horiek oso feminizatuta baitaude eta gizonak parte hartze txikia baitute oraindik. .

Baliabide pedagogikoak sortzea. **Baliabide** berriak sortzea estrategia garrantzitsua da edukiak eta eraldaketa-proposamenak modu ordenatuan eta erakargarrian aurkezteko. Gainera, komunikazio-tresna interesgarria da. Infografiak, errezeta-liburuak, sasoiko produktuen egutegiak, gidak, ohiko galderak, bideoak... Horiek laguntzen ditugun komunitateen eskura jarritako baliabideak dira, eta gainontzeko eragileen eskura ere daude alimentareseducar.org webgunean.

BI

IGEEi bidelaguntza ematea elikedura-trantsizioko prozesuetan

Topaketak. IGEEen, federazioen, irakasleen eta erakundeen arteko **topaketek** tokiko eta estatu mailako irismena izan dute, eta garrantzitsuak diren beste eragile batzuei ere zuzendu dira, hala nola sukaldeko eta jantokiko langileei [hezitzaileei], ekimen iraunkorrek abian jarri dituzten enpresei, udalei... Topaketak, bada, estrategia motibagarria dira, eta elikadura iraunkorrari buruzko eztabaidak eta esperientzia inspiratzaileak eta eraldatzaileak partekatzeko aukera eman dute. Gainera, estatu-mailako eta tokiko aurrez aurreko topaketez gain, web-mintegiak ere egin dira lurralde desberdinetako eragileen parte-hartzea errazteko, eta horrek formatuak eta edukiak malgutzeko aukera eman du.

Eragina eta antolakuntza. Jantokiko batzordeekin eta/edo elikadura-batzordeekin egindako lanak; IGEEkin, federazioekin, konfederazioekin eta CEAPArekin izandako antolakuntzak; eta lurraldeetan elikadura osasungarriagoa eskatzeko eraturako plataformek **eragin politikoko** ekintzak laguntzeko aukera eman dute; batez ere, beraiek administrazioen aurrean egiten dituzten horiek. Eragin politikoko jarduerak funtsezkoak dira arazo horri buruzko sentsibilizazioa handitzeko eta behar diren aldaketak bultzatuko dituzten politika publikoak sustatzeko.

Programaren denbora-tarteak estrategia desberdinei jarraipena emateko aukera eman digu. Estrategia horiek, bada, ikastetxeetan dauden elikadura une edo eremuetan aldaketak sartzea lortu dute: eskola-jantokia, gosariak eta askariak, baita ospakizunak, eskolako festak, urtebetetzeak, txangoak eta abar ere. Horiek hurrengo ataletan azalduko ditugun hainbat eskalatako eraldaketak ekarri dituzte.



HIRU

Aldaketa subjektu
kritikoengandik
eta herritar
antolatuengandik
pentsatzea

HIRU

Aldaketa subjektu
kritikoengandik eta herritar
antolatuegandik pentsatzea

3. ALDAKETA SUBJEKTU KRITIKOENGANDIK ETA HERRITAR ANTOLATUENGANDIK PENTSATZEA

Pertsonok banaka eta batez ere kolektiboan dugun botereari buruz hausnartuko dugu, hain zuzen ere eskala txikiko aldaketak —elikadura eta kontsumo ohiturei dagozkienak— eta eraldaketa sakonagoak sustatzeko botereari buruz. Eraldaketa horiek posible dira gure ikastetxeetan eta erakundeetan modu antolatuan jarduten dugunean, eta gure agendan eragin politikoko, sentsibilizazioko eta/edo mobilizazioko ekintzak sartzen ditugunean.

Gaur egungo elikadura ereduaren eraldaketak hainbat mailatako ekintza behar du eta horretan inplikatu beharko dira gobernua eta instituzioak, enpresak eta korporazioak, komunitate zientifikoak eta komunitate baserriarrak, gizarte mugimenduak eta herri erakundeak, ekoizleak eta kontsumitzaileak... Jakina, eragileen eragiteko ahalmena, politikak aldatzeko eta elikadura, ekologia eta gizarte trantsizioa sustatzeko, desberdina da, baina inork ez du zalantzan jartzen haien konpromisoa ezinbestekoa dela helburu hori lortzeko.

Dena den, elikadura-sistemen izaera zehazten duten politikak erabat aldatzeko eskaera herritartasun kritikoaren, kontzientearen eta mobilizatuaren eskutik bakarrik etor daiteke. Horregatik, aldaketa subjektu kritikoengandik pentsatzea proposatzen dugu. Izan ere, horiek kolektibo mobilizatuak dira, errealitatea kritikoki aztertzeko gai dira, eta elikadura-trantsizioa [kasu honetan] oinarritzeko gakoak identifikatzeko eta hura sustatzeko eta haren protagonista izateko eragiletasuna⁸ dute.

Termino horietan, hau da, subjektu politiko gisa ezartzen den herritartasun kritikoaren eraikuntzak hezkuntza-prozesuak behar ditu. Horiek errealitatea ulertzeko eta horretan eragiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatzera bideratu beharko dira. Eta honako konbikzio hau izan beharko dute: nahi dugun elikadura-trantsizioak aldaketa indibiduala eskatzen duela, derrigorrez; baina erabaki esparru hori gainditzen duela eta ekintza kolektibo ezinbesteko estrategia gisa kokatzen duela, mobilizaziorako, eragin politikorako eta ekoizpen eta kontsumo esperientzia alternatiboak abian jartzeko.

Globalizazio neoliberalak mota guztietako krisiak eragiten ditu, eta horiek ez dira desagertzen, aitzitik, biderkatu egiten dira eta elkar indartzen dute. Horien atzean egitura kapitalista, komertzial eta finantzario konplexua dago, eta elikagaiak ekoizteko dugun modua horretan oinarritzen da. Sistema horren, eta elikadura-katea kontrolatzen duten enpresen botere handiak, bada, aldaketak bultzatzeko ahalmenik gabe sentiarazten gaituzte askotan. Elikagaiak ekoizteko modu bidezkoagoak, osasungarriagoak eta iraunkorragoak lortzeko aldaketez ari gara. Uzkuordura horretatik gure buruari galdetzen diogu zer egin dezakeen jende arruntak —botere demokratiko gutxi duenak— korporazio handi horien nagusitasunean eragiteko edo hura gelditzeko.

⁸ Amartya Senek honela definitzen du eragiletasuna edo agentzia: "persona batek egin eta lor dezakeena, garrantzitsuztat jotzen dituen xedeak edo balioak bilatzeko" [1985: 203]. Gaitasun hori benetan gauzatzeko, hura errazten duten baldintza guztiak garatu behar dira lehenago [kalitatezko prestakuntza, egiazko informazioa erabiltzea, errealitatea ulertzea, konplexutasunetik aztertzea...]. Hala, eragiletasun indibiduala eragiletasun kolektiboarekin osatzen da, hura komunitateari on egiten dioten aldaketen zerbitzura jartzen denean.

HIRU

Aldaketa subjektu
kritikoengandik eta herritar
antolatuengandik pentsatzea

Hala ere, itxaropenik gabeko ikuspegi etsikor horien aurrean, herritar antolatuek duten botere izugarria aldarrikatu, baloratu eta aktibatu behar dugu. Kontsumitzaile gisa dugun eginkizun horretatik, zer jaten dugun erabaki dezakegu, eta horrela oso bestelakoak diren ereduaren garapenean eragin dezakegu. Gainera, komunitate antolatu gisa, gure kontzientzia politikoaren eta eragiletasunaren bitartez, trantsizio hori posible dela frogatu dezakegu, eta adierazpen hori oinarritzeko hainbat esperientzia eta praktika ditugu.

A close-up photograph of a watermelon rind, showing the characteristic diamond-shaped pattern and several dark green seeds. The image is partially obscured by a dark red circular graphic on the right side.

LAU

Ikaspenak
berreskuratzea
beste talde
eta kolektibo
batzuetara
zabaltzeko
estrategia gisa

LAU

Ikaspenak berreskuratzea beste talde eta kolektibo batzuetara zabaltzeko estrategia gisa

4. IKASPENAK BERRESKURATZEA BESTE TALDE ETA KOLEKTIBO BATZUETARA ZABALTZEKO ESTRATEGIA GISA

Ikaspenak berreskuratzea estrategia ona da esku-hartzeko prozesu jakin baten oinarrian izandako gakoak zeintzuk izan diren zehazteko. Horretan, alderdi positiboak, eta prozesuan agertutako zailtasunak eta erresistentziak agertzen dira, baina baita horiek gainditzeko eta –gure kasuan– behar dugun elikadura-trantsizioan aurrera egiteko garatu diren dinamikak ere.

Elikadura-trantsizioko prozesuei lotutako esperientzien azterketan honako hauek aurkitzen ditugu: motibazioa [elikadura-eredua aldatzeko dugun konpromisoa berritzeko], inspirazioa [antolakuntza, plangintza eta ekintza modu berriak aurkitzeko] eta ikaspenak [zailtasunen, erresistentzien eta horiek gainditzeko estrategien berri ematen diguten giltzarriak biltzeko, baina baita prozesuei aurrera egiten laguntzen dieten eta horien atzean dauden eragileak indartzen dituzten alderdi guztiak baloratzeko eta partekatzeko ere].

Komunitate protagonistaz gain, ikaspenak berreskuratzea, ordenatzea eta aurkeztea hausnarketa interesgarria izan daiteke beste testuinguru batzuetan, esperientzian parte hartu ez duten beste gizarte eragile batzuek horretaz jabetu ahal izateko.

Hainbat kolektibori bidelaguntza emateko prozesuetatik egindako ikaspenak oso ekarpen baliagarria izan daitezke beste eremu batzuetan antzeko kezka dituzten beste erakunde antolatatu batzuentzat.

Ikaspenak berreskuratzeko estrategia horren alde egiten dugu; uste baitugu hainbat elementu komun daudela ikastetxeetan lagundu ditugun prozesuen eta elikadura ere presente dagoen beste esparru edo sektore askotan bultzatu daitezkeen horien artean. Hain zuzen ere, praktika iraunkorrakoak sustatzeko interesa partekatzen duten horiei buruz ari gara.

Jarraian, zenbait alderdi batzuk aipatuko ditugu, eta horietako ikaspenak sistematizatzen saiatuko gara, beste elikadura-eredu batzuetarako trantsizioan inplikaturako subjektuen aniztasuna zabaltzeko estrategia gisa.

Komunitate guztiongan eragiten **testuinguru global** bat dago, eta, horretan, hainbat inpaktu eragiten dituen elikadura-sistema dago, logika bakar baten arabera jarduten duena.

Koiunturak, araudiek eta politika publikoek zehazten dituzte, eta agertzen diren eta egoera berriak sortzen dituzten fenomenoek eraginpean daude [COVID-19, lurralde desberdinetako gatazkak eta gerrak, krisi humanitarioak...]. Baina, aldi berean, aldatzeko bultzatzeko zailtasunak eta aukerak ekartzen dituzte. .

Subjektuak. Zenbait dinamika subjektuen arteko botere-harremanen eta mekanismo kulturalen eraginpean daude, interes desberdinei –erreproduktziozkoak edo erresistentziazkoak– erantzuteko bultzatuak izaten dira, desparekotasunak zeharkatuta daude eta azterketa intersektionalaren beharra izaten dute –feminismoetatik,


LAU

Ikaspenak berreskuratzea beste talde eta kolektibo batzuetara zabaltzeko estrategia gisa

kulturartekotasun kritikotik, antirrazismotik, ekologismotik...-. Dinamika horiek hainbat komunitatek partekatzen dituzte eta elikadura-trantsizioko proposamenen aurretik egiten diren elkarrizketa eta negoziazio prozesuetatik ere sortzen dira.

Errepikatzen diren **estrategiak**, beste testuinguru batzuetan aplika daitezkeen ikaspenak ateratzeko baliagarriak direnak. Sentsibilizazioko, ikerketako, prestakuntzako, eragin politikoko eta gizarte mobilizazioko jarduerak ezinbesteko tresnak dira elikadura-ereduaren aldatzarekin batera egin behar den kultura eta hezkuntza aldaketa sustatzeko. Diagnostikoen garrantziari erreparatzeaz ari gara; eragileen sentsibilizazioa hobetzen duten mezuak, diskurtsoak eta argudioak identifikatzeaz; elikadurari buruzko prestakuntza on baten edukiak pedagogikoki antolatzeaz eta garatzeaz; edo eragin politikoko eta gizarte mobilizazioko gaitasuna –sareak, antolakuntzak, koordinazioa...- zabaltzeko estrategiarik onenak ezagutzeaz. Elementu horiek guztiak garrantzitsuak dira beste edozein kolektibo antolaturen jarduera partekatzeko eta indartzeko.

Elikadura-erlaketak. Beste elikadura-eredu batzuetara igarotzeko bidea hainbat aukeratan banatzen da, elikadura praktika edo ohituretan aldaketa txikiak egitetik hasi [esate baterako, hestebekeen eta opilen ordeztu fruta jatea; animalia jatorriko proteina gutxiago jatea eta barazki eta lekale gehiago hartzea] eta inpaktu handiagoko aldatetearaino [hornitzaileen zerrendan tokiko elikagai ekologikoen ekoizleak sartzea edo menua aldatzea, tokiko eta sasoiko produktu osasungarri eta iraunkorrak sustatzeko irizpidearen arabera]. Gainera, kasu honetan esperientzia batzuetatik beste batzuetara eraman daitezkeen ikaspenak ditugu. Horiek agertzen diren erresistentziak gainditzeko estrategiak ekartzen dituzte, eta aldaketa proposamenetan eragile gehiago sartzea ere.



BOST

Elikadura-
trantsizioko
prozesuak
laguntzeko
gida

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

5. ELIKADURA-TRANTSIZIOKO PROZESUAK LAGUNTZEKO GIDA

Elikadura-trantsizioko prozesu baten elementurik estrategikoenak aurkeztuko ditugu. Beren testuinguruetan antzeko prozesuekin konprometituta dauden beste eragile batzuentzat garrantzitsuenak diren ikaspenak berrekuratuko ditugu.

Dokumentu hau egiteko eta, bereziki, kapitulu honetarako, funtsezkoak izan dira, alde batetik, *Alimentar es educar* programaren barruan IGEei bidelaguntza emateko esperientzia, eta, bestetik, lurraldeetako lagunen lana. Izan ere, azken horiek, prozesua dinamizatzeaz gain, esperientzia hura berariaz egindako sistematizazio-fitxetan [Anexo 1] jasotzeaz arduratu dira.

Atal honetan, elikadura-trantsizioko edozein prozesuren elementurik estrategikoenak aukeratuko ditugu, eta, horietako bakoitzerako, ikaspenik garrantzitsuenak berreskuratuko ditugu. Hala, ikaspen horiek aurkeztuko ditugu, beste eragile batzuentzat erabilgarriak eta, aldi berean, iradokitzaileak izan daitezen, eragile horien erreferentziatzko testuinguruetan elikadura-trantsizioko prozesu berriak bultzatzeko konpromisoa animatzeko.

Hurrengo ataletako bakoitzean —eta gai, estrategia edo esperientzia bakoitzarekin lotuta—, lehenik, kontuaren egoera modu generikoan aurkeztuko dugu, eta, jarraian, ezaugarri adierazgarrienak emango ditugu. Hala, aztertutako kontuak elikadura-trantsizioko prozesua laguntzeko duen balioa zehazten saiatuko gara.

Behin sarrera labor hori eginda, “Gure esperientziatik” izeneko azpiatal bat eskainiko dugu. Horretan, azken sei urteotan IGEei laguntzeko egin dugun prozesua deskribatuko dugu, ikaspenak partekatzen ari garen alderdi zehatzari lotuta.

Ondoren, partekatu nahi ditugun ikaskuntzak aterako ditugu [more kolorean eta gezi batekin “»” nabarmenduak]. Izan ere, horiek inspiratzaileak izan daitezkeela uste dugu, trantsizioko prozesuak elikadura-interakzioak dauden beste leku batzuetan bultzatzeko.

Dagokionean, zailtasunen edo erresistentzien kontua ere landuko dugu. Prozesuan modu naturalean sortu ohi diren traba horiek aztertzea interesgarria izan daitezke horiek gainditzeko estrategiak aurreikusteko. Gure esperientzian, horrelako estrategiek prozesuan gertatutako horrelako egoerak, geldialdiak edo gatazkak konpontzeko balio izan dute.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.1. TESTUINGURUEN ETA KOIUNTUREN GARRANTZIA**

Errealitatea eta ingurua ezagutzeak gure erakundea/instituzioa/ikastetxea ulertzeko duen interesa nabarmenduko dugu... eta unearen –koiunturaren– ezaugarriak identifikatzearen interesa ere, gure burua horretan kokatzeko.

Eraldaketa lortu nahi duen eta kultura eta hezkuntza aldaketa dakarren edozein prozesuk –elikadura trantsizioko prozesuak barne– **tokiko testuingurua eta testuinguru globala** ondo ezagutzea eskatzen du. Eta ezagutza horren barruan, ezinbestekoa da egitura politiko, ekonomiko eta sozialen interakzioaren konplexutasuna ulertzea. Izan ere, egitura horien interakzioak, kasu honetan, oso ondo antolatuta dagoen elikadura-sistema ekarri du, hain zuzen ere, bere funtzionamenduan bere erreprodukzioa bermatzeko behar dituen elementuak sartu dituena.

Tokiko-global ikuspegia ezinbesteko bihurtzen da gure inguruan gertatzen dena ulertzeko eta dinamika globalekin lotzeko. Izan ere, dinamika horiek agronegozioaren logiken arabera dira; hau da, elikadura-sistema kolonizatzen duten eta hura elikadura merkatuaren interesen menpe jartzen duten logika horien arabera.

Kontuan hartu beharra dago, gure trantsizioko prozesua hobeto kokatzeko, zeintzuk diren elikadura bidezko, osasungarri eta iraunkor baterako aldaketa erraztu edo zaildu dezaketen koiunturak. Koiunturak aldakorra izan daitekeen denbora-tarte txikiago bati dagozkion arren, kontuan hartu behar ditugu, gure proiektuaren garapena baldintzatzeko gai baitira.

5.1.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Hainbat autonomia erkidegotan [Andaluzia, Aragoi, Euskadi, Balear Uharteak, Madril eta Valentziar Herria] IGEei bidelaguntza emateko egin dugun lanak erakutsi digu garrantzitsua dela testuinguru globala eta lurraldeetako tokiko testuingurua lotzea; eta, aldi berean, horiek prozesuan sortu diren kontu koiunturalekin gurutzatzea ere. Azterketa orokorrako batetik, eta une bakoitzean aurkitzen diren baldintzak kontuan hartuta [pandemia, krisi energetikoa, elikagaien prezioen igoera...], ikastetxe bakoitzean eta IGE edo federazio/konfederazio bakoitzarekin kolaborazio eta esku-hartzeko plan askoz doituagoa eta egokiagoa egin ahal izan dugu.

Aipatu beharreko lehen kontu gisa, **aniztasuna** ezaugarri duen egoera baten aurrean geunden. Horrek, kasu batzuetan elikadura-trantsizioko prozesuen garapena errazten du, baina, beste batzuetan, izugarri zailtzen du, bai elikadura-espazioen kudeaketa arautzen duten politikengatik, bai hezkuntza eta gizarte eragileek horrelako prozesuak bultzatzeko premiaren inguruan duten sentsibilitate mailagatik.

Aniztasun hori lurraldeen artean ez ezik, lurralde beraren barruan ere aurkitzen dugu, eta bereziki hiri-inguruneetan, lan egiten ari garen ikastetxea kokatuta dagoen auzoaren arabera. Hori, gehienetan, erabakigarria izaten da lan egiten dugun familien **testuinguru soziokulturala eta sozioekonomikoa** ezagutzeko. Horrela, bada,

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

elikadura-trantsizioko prozesuak bultzatzeko esku-hartzeak ez dira berdinak izango oinarrizko premiak eta elikadura-premiak ziurtatuta dituzten familien kasuan eta egoera ahulean, pobretuta edo egoera ekonomiko prekarioan dauden eta kapital kultural gutxi duten familietatik datozen ikasleen kasuan, azken hauen elikadura-eskubidea ez baitago erabat bermatuta.

Azken horien kasuan, maiz, elikadura nagusia –otordurik garrantzitsuena– eskola jantokiari dagokion hori da, eta, beraz, menua aldatzeko proposamenen aurrean erresistentziak egon daitezke.

Nolanahi ere, pertsona guztien eta, bereziki, sektore ahulenen elikatzeko eskubidea bermatzea eskatzen dugu, eta, aldi berean, elikadura hori bidezkoa, osasungarria eta iraunkorra izatea aldarrikatzen dugu.

Jakina, prozesu horien bilakaeran eragina duten beste faktore batzuk ere badaude, hala nola lurralde-dimentsioa eta ikastetxeen beren dimentsioa.

Aldez aurreko azterketa horiek eta elikadura-trantsizioko prozesuak bultzatuko dituzten kolektiboen karakterizazioa garrantzitsuak dira, lehentasunen eskala ezartzen laguntzen baitigute. Hau da, testuinguruek landu behar ditugun gaiei buruzko pistak ematen dizkigute, baita horien artean ezarri behar den lehentasunari buruzkoak ere, helburu dugun elikadura-trantsizioa bermatuko duten urratsak egiten joateko.

Baina koiunturak ere kontuan hartu behar ditugu, batez ere aldi baterakoak diren baina kezkatzen gaituzten gaiei buruz hausnartzeko aukera ematen diguten fenomeno edo gertaerek eskaintzen dizkiguten aukerak aprobeatzeko.

Azken urteotan, elikaduraren problematika gero eta gehiago agertu da agenda publikoan eta herritarren kontzientzian. Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen elikadura funtsezko jarduera dela eta ezin dugula alde batera utzi. Alabaina, azterketa kritikoagoan sakontzeko baliatu behar dugu eztabaida hori; hain zuzen, identifikatu ahal izateko zein elikadura-ereduk duen elikadura eskubidea bermatzeko potentzialtasun handiagoa⁹.

- » Elikadura eskubidea bermatzen duten politika publikoak eskatzea, horiek baitira ondasun edo zerbitzu bat doanik eskaintzeko edo haren kostua merkatzeko gai direnak [prezioa mugatuz, BEZa murriztuz, energia edo etxebizitza bezalako arloak arautuz...]
- » Elikagaien publizitateari buruzko arau zorrotza eskatzea, osasungarriak ez diren jakien eta edarien sustapena ekiditeko. Eskakizun horren barruan, haurrei zuzendutako publizitateari buruzko araudi espezifikoak exijitzea; izan ere, horiek sentikorak dira eta babesgabe daude publizitate mezuen aurrean.
- » Udal-merkatuak sustatzea eta babestea, tokian ekoizitako elikagaiak biltzeko eta produktu horiek saltzen dituzten pertsonekin harreman zuzena izateko.
- » Merkataritza-zentro handiek izan dezaketen azalera mugatzeko eskatzea, tokiko merkataritza eta elikadura-denda txikiak sustatzeko, dinamizatzeko eta babesteko neurri gisa.

⁹ Adibide gisa: La Alianza por una Alimentación Saludable reclama al nuevo gobierno nuevas políticas públicas sobre alimentación en tiempos de crisis; Campaña por la prohibición de la publicidad de alimentos no saludables para la infancia; ¡Reclama tu mercado!

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.1.1.1. Gaur egungo elikadura-sistemak gure osasunean eta planetan duen inpaktuan eragitea**

Gaur egungo elikadura-sistemak pertsonen osasunean duen inpaktua argi ikusten da dietarekin lotutako gaixotasunen igoeran [gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, obesitatea, minbizia...]. Gaixotasun horiek bizitza luze eta osasuntsu bat izateko aukerak murrizten dituzte. Egoera jeneralizatua da, eta desberdin eragiten die biztanle-sektore desberdinei [emakumeak, gazteak, kalteberatasun egoeran dauden biztanleak...], baina eremu guztietan eta mundu mailan atzematen da [hiriguneetako zein baserri eremuetako biztanleak; Hegoalde zein Iparralde globala].

Dieta ez-osasungarriak, beraz, funtsezko faktorea dira, baina ez bakarra. Beste faktore batzuk daude, eta elkarrekin konbinatuta, osasun-arrisku handiko egoera eragiten dute. IPES-Food erakundeak egindako txostenak gogorarazten digun bezala [2017: 4]: Pertsonak gaixotzen dira honako arrazoi hauengatik:

- Osasungarriak ez diren lan-baldintzak dituzte.
- Uretako, zoruko eta aireko kutsatzaileak jasaten dituzte.
- Seguruak ez diren edo kutsatuta dauden elikagaiak hartzen dituzte.
- Osasungarriak ez diren dietak dituzte.
- Beti ez dute elikagai egokiak eta onargarriak lortzeko aukerarik.

Ez dago pertsonen osasuna soilik jokoan, elikadura-sistemak ingurumenean eragiten dituen alterazio larriei buruz ere ohartarazi beharra dago.

Nazio Batuen Ingurumen Programaren Txostenak lotura estua ikusten du elikagaiak mundu mailan ekoizteko moduen eta bizi dugun krisi ekologiko sakonaren artean: “Munduko elikadura-sistema eraldatu behar dugu bioaniztasunaren galera gelditzeko” [Chatham House, 2021:2]. Ikerketa horren arabera, elikadura-sistemak hiru jarduera-ildo hauen arabera eraldatzeko premia dago:

- Eredu dietetiko globalak barazki gehiago duten dietetan oinarritzea.
- Lurrak gehiago babestea eta eremu basatiak zaintzea; eta.
- Natura gehiago errespetatuz laboratzea [Idem, p. 2-3].

Esandako guztiak honako hauetara garamatza: elikaduraren auzia ikuspegi holistikogoetatik lantzeraz, hala nola agroekologiaren ikuspegitik; dieta osasungarriagoak sustatzeraz, hala nola dieta mediterranea; eta hurbileko, sasoiko eta modu jasangarrian produzitutako elikagaiak lehenesten dituen kontsumoa bultzatzeraz.

» Elikadura-osasuna harremanaren inguruko eztabaida soziala baliatzea, genero ikuspegidun elikadura burujabetzaren proposamena elikadura bidezkoa, osasungarria eta iraunkorra bultzatzeko estrategia gisa posizionatzeko.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

- » Nagusi den elikadura-sistemaren ezaugarriak ezagutzera ematea. Horien funtzionamendua eta inpaktuak ulertu bitartez soilik sor daiteke ekintza eraldatzailea mobilizatzeko behar den kontzientzia kritikoa.
- » Eredua aldatzeko premiari buruz sentsibilizatzea, elikadura-sistemak gure osasunean eta planetan eragiten dituen inpaktuak itzultzeko.
- » Agroekologia ekoizpen-estrategia gisa bultzatzea; dieta osasungarriak sustatzea eta kontsumo kritikoa eta eraldatzailea bultzatzea.
- » Aldaketa prozesua ikuspegi feminista duen elikadura burujabetzaren proposamenaren esparruan sartzea.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.2. GURE ERREALITATEARI APLIKATUTAKO DIAGNOSTIKOAK**

Identifikatuko ditugu aplikatzeko politikak eta araudiak; subjektuak eta eragileak; elikadura-trantsizioko prozesuetan eragiten duten egoerak eta problematikak.

Diagnostikoak beti dira garrantzitsuak esku hartu nahi dugun egoera jakin bat sakon ezagutzeko; agerian jarri nahi dugun arazo bat salatzeke; horren irismena mugatzeko eta hori konpontzeko estrategiak zehazteko, edo, behintzat, konponbideak bideratzeko; eragile arduradunak edo bideratzaileak identifikatzeko, eta abarrerako.

Hiru diagnostiko mota aipa ditzakegu eta, ahal den neurrian, interesgarria da bakoitzak bere mailan ematen duten informazioa berreskuratzea:

- **Orokorrak.** Oro har, elikadurari buruzko ikerketak dira, edo, zehatzago, eskola elikadurari buruzkoak, eta estatu mailako egoera aztertzen dute. Esate baterako: *Alimentación en los colegios. Menús escolares* [OCU, 2023]; *Los comedores escolares en España. Del diagnóstico a las propuestas de mejora* [Del campo al cole, Carro de combate eta SEO BirdLife, 2018]; *La alimentación escolar en España. Hacia un modelo más saludable y sostenible* [Del campo al cole, Alimentando conciencias eta Carro de combate, 2017]; *Viaje al centro de la alimentación que nos enferma* [VSF Justicia Alimentaria Global, 2016]; *Estudio sobre comedores escolares y compra próxima* [CEAPA, 2016].
- **Erdi mailakoak.** Lurralde-eremu mugatuagoa duten horiei buruz ari gara. Oro har, autonomia erkidego jakin batean lantzen dute gaia. Esate baterako: *Informe. Análisis de la gestión de los comedores escolares en Granada* [FAMPA Alhambra, CODAPA, Justicia Alimentaria, 2023]; *Eskola-jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta gure ingurunearekin duen lotura* [VSF Bidezko Elikadura-EHIGE, 2017]; *Alimentar el cambio. Diagnóstico sobre los comedores escolares de la Comunidad de Madrid y su transición hacia modelos más saludables y sostenibles* [Garua, S. Coop. Mad eta Fundación Daniel & Nina Carasso, 2017].
- **Espezifikoak.** Ekimen baten, ikastetxe baten edo beste erakunde baten talde eragileak bere erakundeari dagokion informazio garrantzitsua lortzeko egiten duen edozein diagnostiko, elikadura-trantsizioko proposamen bat abian jartzeko helburuz.

Funtsezkoa da gure hurbileko eremua aztertzeke denbora eta esfortzua ematea, elikadura-trantsizioko prozesuak sustatuko ditugun lan eremuan eragiten duten kontuak aztertzeke: subjektuak, prozesuak, problematikak, dagoen elikadura-kultura, aukerak eta proiektu eraldatzaileak...

5.2.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Azken urteotan, IGEei bidelaguntza emateko lanean etengabe egin ditugu diagnostikoak. Horietako batzuk beste erakunde eta instituzio batzuekin batera egin ditugu.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

Diagnostiko orokorrek, lehen aipatutako horiek bezalakoek, eskola-elikaduraren estatu mailako egoera eguneratzen lagundu digute. Sukaldaritzako kolektiboaren sektorearen karakterizazioa, kasu bakoitzean aplikatzen diren araudiak, enpresa dibertsifikazioaren edo kontzentrazioaren inguruan ikusten diren joerak, edo eskola-jantokiaren kudeaketa ereduak, besteak beste.

Halaber, bildutako datuen azterketa lagungarria da erosketara publiko berdearen edo elikadura osasungarri eta iraunkorraren arloan egindako aurrerapenak ezagutzeko, baina baita beste hauek ezagutzeko ere: eskola-elikaduran eragiten duten problematikak¹⁰, edo biztanlego sektore batzuek bere elikadura eskubidearen inguruan izaten dituzten zailtasunak, edo elikadura prozesu osoan —ekoizpenetik mahaira— instalatutako logiken ondorio diren horiek.

5.2.1.1. Eskola-komunitateen baitan gobernantza eremuak sustatzea eta indartzea

Eskolan elikadura-giro osasungarria, iraunkorra eta hezigarria sustatzeko, familiek elikadura batzordeak osatzeko aukera dute, IGEaren barneko eremu gisa. Horietan eskolako elikadura-eremuetan eragiten duten kontuak modu antolatuan lantzeko aukera dago, hala nola horiei buruzko diagnostikoak, eskaerak, proposamenak eta adostasunak. Gainera, ikastetxeko *jantokiko batzorde* edo elikadura batzorde bat osa daiteke. Hura Eskola Kontseiluaren barruan egongo da eta familien eta hezkuntza komunitateko beste kideen ordezkaritza izango du [zuzendaritza taldea, jantokiko arduraduna, irakasleak, ikasleak]. Jantokiko batzorde hura oso garrantzitsua da, izan ere, araudian atribuzio batzuk ematen zaizkio, hala nola jantokiko zerbitzua ebaluatzea eta Eskola Kontseiluari hobekuntza-proposamenak egitea. Gobernantza-eremu horrek formatu desberdinak ditu lurraldearen arabera, baina gehienetan eskola jantokia ikuskatzeko, kontrolatzeko eta hobetzeko eginkizunak ditu.

5.2.1.2. Eragin nahi dugun errealitatea ezagutzea

Alimentar es educar programaren barruan garrantzi handia eman diogu diagnostikoen kontuari. Hala, lurralde izaerako diagnostikoak —erdi mailakoak— egin ditugu, normalean beste erakunde batzuekin batera.

Euskadiren kasuan, lehen aipatutako *Eskola-jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta gure ingurunearekin duen lotura*, dugu. Hura kide garen *Gure platera gure aukera*¹¹, plataformak sustatutako ekimenekin lotuta dago.

Valentziar Herrian, *Comedor escolar y alimentación en el colegio: Preguntas frecuentes de las familias* [Justicia Alimentaria, 2020] ikerketa diagnostikoa egin dugu. Horren bitartez, familiek eskola elikaduraren inguruan dituzten kezkei erantzuten saiatu gara.

¹⁰ Zentzu horretan, zenbait txostenen arabera eskola elikaduraren inguruan ditugun helburuak lortzeki urrun gaude. Izan ere, OCUk eskola-menuei buruz egindako txostenak [2023] datu mingarriak ematen ditu; hain zuzen ere, aztertutako 622 menuetako batek ere ez dituela betetzen Elikadura Segurtasunaren eta Nutrizioaren Espainiako Agentziaren gomendioak, edo menuak oso desorekatuta daudela, karbohidrato gehiegi dituztela lekaleekin alderatuta, eta aurrez prestatutako elikagai asko sartzen dituztela.

¹¹ Gure platera gure aukera Euskal Herriko hainbat kolektibo biltzen dituen ekimena da, eskoletan jantoki-eredu osasungarria, gertukoa eta bidezkoa aldarrikatzeko helburuz.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

Andaluzian, laster argitaratuko diren, Justicia Alimentariaren enkarguz, honako bi lan hauek egin dituzte: *La alimentación escolar en Andalucía* [Del Campo al Cole, 2024] eta *Alimentando Igualdad. Corresponsabilidad en la educación alimentaria en Andalucía* [Fundación Iniciativa Social, 2024].

Halaber, Aragoiren kasuan, *Mejorar el comedor escolar está en nuestras manos* [Genaro Delgado Bahamonde; Plataforma por unos comedores escolares públicos de calidad y Justicia Alimentaria, 2022] lana dugu.

Balear Uharteetan *Diagnòstic dels menjadors escolars de les Illes Balears. Recomanacions per a una compra pública mes justa i sostenible* [Ceraí, FAPA Mallorca, Apaema, Justicia Alimentaria, 2023] txostena dugu.

Beste kasu batzuetan, beste erakunde batzuek egindako diagnostikoetatik abiatuta planifikatu dugu lana; izan ere, horiek ere lurralde bakoitzeko hasierako egoeraren ezaugarri nagusiak ezagutzeko aukera ematen digute.

Katalunian, *Menjadors escolars més sans i sostenibles. Guia de transformació* [Agència de Salut Pública de Barcelona, 2021] lana dugu.

Madriren. *Alimentar el cambio. Diagnóstico sobre los comedores escolares de la Comunidad de Madrid y su transición hacia modelos más saludables y sostenibles* [Garua, S. Coop. Mad eta Fundación Daniel & Nina Carasso, 2017].

Diagnostiko espezifikoeak, aldaketa sustatu nahi dugun eremuaren egoera aztertzen duten horiek, alegia, elikadura-interakzioak non eta nola gertatzen diren identifikatzeko, eta, hortaz, nondik hasi nahi dugun erabakitzeo aukera ematen digute.

- » Estatu, autonomia eta udal mailan dagokion araudia ezagutzea eta erraztasunez erabiltzea [erosketa publikorako jarraibideei, jantokiaren kudeaketa ereduie zein baldintza-agiriei eta lizitazioei buruzkoak]. Eta maila mikro batean, gure erakundearen protokoloak eta/edo dokumentu estrategikoak ere [honako hauei buruzkoak: produktu motak, zerbitzuak esleitzeko edo kontratatzeo enpresa motak, gizarte eta lan irizpideak, ingurumen irizpideak...]. Hau da, erakundearen eskaintzen den elikadura mota baldintzatzen duen guztia, eta indarrean dagoen elikadura-eredua ezaugarritzen duena.
- » Konfiantzako eta lankidetzako giro on bat sortzea elikadura-trantsizioko prozesuak bultzatzeko lagungarriak diren egitura, organo eta zuzendaritza taldeekin, haien konpromisoa sustatzeko.
- » Elikadura bidezko, osasungarri eta iraunkor bat bermatze aldera lankide izan daitezkeen gizarte eta lurralde eragileak mapatzea [tokiko ekoizleen kooperatibak, kontsumo taldeak, udal merkatuak, ekonomia sozial eta solidarioko enpresa txikiak...].
- » Elikadura osasungarri eta iraunkor baten alde lan egiten duten plataformak ezagutzea, horietan parte hartzeo eta horien bitartez gure eskakizunak eta eragin politikoko ekintzak bideratzeko.

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

5.2.1.3. Lan egiten dugun lurralde guztiek partekatzen dituzten diagnostiko- elementuak

Eskola-elikadurari lotutako lan guztien feminizazioa. Oro har, familiak IGEtan inplikatzeko eta parte har dezaten lortzeko zailtasunak egoten dira. Errealitateak erakusten digu batez ere emakumeak direla borroka horren buru dabiltzanak.

Eskola jantokiari aplikatutako kudeaketa ereduari dagozkion desberdintasunak. Lurraldez lurralde legearen esparruan desberdintasunak badaude ere, egian esan, eskola jantokietan janaria prestatzeko bi modu daude, oro har: egunero ikastetxean bertan kozinatzea, edo elikagaiak aldeztatik beste leku batean prestatzea eta ikastetxera eramatea. Ebidentziaren arabera, egunero ikastetxean bertan kozinatzeke eredu gutxienean da, eta, hala ere, komenigarriena da hainbat faktorerengatik, hala nola hauengatik:

- Egunero ikastetxean bertan prestatutako janariak kalitate handiagoa du, eta bazkaltzarren harrera bi aldiz hobea da. Horrek, besteak beste, elikagaiak alferrik galtzea saihesten du, beste eredu batzuetan xahutze hori oso altua delarik.
- Eredu honetan sukaldeko langileek astero erosten dute eta eskala txikian. Horrek, bada, tokiko eta sasoko produktuen erosketari sustatzen du. Sukalde zentralerako ereduari, aldiz, eguneko ehunka mila plater prestatzen dira eta osagaiak handizka erosten dira hurbiltasuna eta sasokotasuna kontuan hartu gabe.
- Azkenik, eredu horrek erraztu egiten du familiek jantokian parte hartzea, haien eta menua erabakitzen, osagaiak erosten eta janari prestatzen duten horien arteko hurbiltasuna handiagoa baita.

Menuei dagokienez. *Alimentación en los colegios. Menús escolares* [OCU, 2023] txostenak eskola menuak hobetzeko iradokitzen dituen gomendioak erreferentzia gisa har ditzakegu; izan ere, beste txosten orokor edo lurraldeko txosten batzuetan adierazitako horretara hurbiltzen dira –zati batean edo beren osotasunean–.

- Gertuko produktuen presentzia handitzea.
- Elikagai integralen presentzia handitzea.
- Lekaleen eta barazki osoen kontsumoa handitzea, batez ere sasoko barazkiak.
- Arrain urdinaren presentzia handitzea, batez ere tamaina txikiko arrainena.
- Arrautzen presentzia handitzea, gutxienez astean behin.
- Aurrez prestatutako eta frijituen presentzia nabarmen murriztea.
- Postreetan fruta freskoaren presentzia handitzea.
- Esnezko postreen presentzia murriztea.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

Hornitzaileak aurkitzeko zailtasuna. Zaila izaten da ikastetxeak zirkuitu-laburreko ekoizpenetik etorritako elikagaien bitartez hornitzea. Tokiko produktuen erosketa sustatzeko borondate politiko gutxi dago, eta ez dago araudi argirik eta lurralde guztiei dagokien araudirik.

Logistika errazteko laguntzarik ez administrazioen eskutik. Ikastetxeak ekoizle bati erosi behar dizkio barazkiak, beste bati frutak... Errazagoa izango litzateke ikastetxeek elkarrekin erosteko moduren bat egongo balitz, esate baterako, tokiko ekoizleen hornikuntza-zentralen baten bitartez.

- » Tokiko merkatuak edo tokiko ekoizleen hornikuntza-zentralak ezagutzea, sasoko produktu fresko eta ekologikoen hornikuntza bermatzeko.
- » Lagunduko ditugun pertsonen ezaugarri soziokulturalak eta sozioekonomikoak, haien iritziak eta elikadura ohiturak eta haien erresistentziak kontuan hartzea, elikaduraren arloko diseinuak eta ekintzak ikuspegi feminista eta inklusibo batetik proposatzeko [esate baterako, baliabide pedagogikoen diseinuan eta zabalkundearen, diagnostikoetan eta ikerketetan...]. Hausnarketa horiek zeharka txertatzea gure jardueretan, batzarretan eta topaketetan.
- » Elikadura-interakzioak gertatzen diren eremu guztiak eta gure erakundearen dauden elikadura-modalitateak identifikatzea, elikadura-ereduaren aldaketa proposamenak horien ezaugarriak eta horien erabilera kontuan har ditzan.

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

5.3. SUBJEKTUEN INPLIKAZIOA. KUDEAKETA ETA ANTOLAKUNTZA

Tartean dauden subjektuen karakterizazioa, prozesuan parte hartzeko gogoia, mobilizazio eta ekintza estrategiak, bidelaguntza emateko estrategiak... Koordinazioa, batzordeak, plangintza, konplizitateak...

Atal honekin hasteko, esan dezakegu ez dela aldaketarik edo trantsiziorik egongo hura bultzatuko eta bideratuko duen subjektu kolektiborik ez badago. Hala, subjektu bakar batez hitz egin beharrean, subjektuez hitz behar dugu. Badakigu, historian zehar eskubideak subjektu politiko jakinen eskutik etorri direla –gehienetan–. Izan ere, subjektu horiek hainbat borroka bideratu dituzte; hala nola langile-klaseak langileen mugimenduan, emakumeek mugimendu feministan, pertsona arrazializatuak eskubide zibilen aldeko borroketan, edo baserritarrek lurrazen eta elikadura burujabetzaaren aldeko borrokan. Hala ere, krisi anitz eta globalizatuaren garai honetan, aldarrikapen sozial eta politikoak askotariko eragile eta kolektiboetatik datoz. Eta hori hala da komunitate osoari eta haren eragileei dagozkien aldarrikapenak direlako. Dinamika hura oso argia da gure elikadura-ereduaren erabateko aldaketa helburu duten mugimenduen kasuan.

Eragile aniztasun horren ondorioz, prozesuak konplexuak izan daitezke, baina aldi berean, esperientzia, jakintza eta gaitasun aniztasunak osatzen duen aberastasuna ekartzen die elikadura-trantsizioei. Beraz, oso garrantzitsua da kezkek, interesak eta agendak bateratzen saiatzea, ibilbide komun batean kokatzeko.

Tartean dauden subjektuen ikuspuntutik, eta bakoitzaren agendan elikadurari dagozkion eskaera horiek kontuan hartzeko arduratik, ezin dugu alde batera utzi elikadura prozesuetan zeharkakoa den beste ikuspegi bat –iraunkortasun ikuspegiarekin batera–.

Ikuspegi feminista interseksionalari buruz ari gara. Ezinbestekoa da elikadura-sistemaren inplikazioei erreparatzea, desparekotasun sozialak eskala handian errepikatzeari eta sakontzeari dagokionez. Eta, desparekotasun horien barruan, generoko, klaseko edo etniako desparekotasunetan duen rola aztertu behar dugu, hain zuzen ere. Hori agerikoa da emakumeek elikadura eskubidea bermatzeko egiten duten lanari ematen zaion aintzatespen txikia ikusita. Izan ere, lan hura ez da ordaintzen neurri handi batean edo –kasurik onenean– ordaina guztiz eskasa da. Oraindik ere, ez dute lurrazen jabe izateko aukera bermatuta. Eta batez ere haiek dira etxeetan zaintzaz eta elikaduraz arduratzen direnak, baina, hala ere, ez zaie arduraren horrek dakartzen lanen eta eginkizunen gainkarga aintzat hartzen. Elikadura txarrak osasunean eragiten dituen inpaktuei dagokienez ere generoko joera dago, eta horren ondorioz inpaktu horiek desberdinak dira gizonengan eta emakumeengan.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.3.1. GURE ESPERIENTZIATIK**

Zentzu horretan, gure esperientziaren arabera batez ere emakumeak dira IGEetan parte hartzen dutenak, eta familien barruan elikadura eskubidea betetzearekin lotutako guztiaz arduratzen direnak. Aldi berean, zaintza lanen inguruko sentsibiltatea handitzen ari da, eta ikusten dugu aita batzuek familiaren elikaduran eta haurren zaintzan rol aktiboa hartzeko prest daudela [oraindik joera apala da].

Hala ere, esan dugun bezala, emakumeak dira –gehienetan– IGEetako prozesu guztiak praktikan antolatzen eta dinamizatzen dituztenak [baina bai aurkitzen ditugu gizonak presidente gisa]. Antolakuntzako lan horiek aintzat hartzen ez den karga mentala eta emozionala eragiten diete.

5.3.1.1. Subjektuen aniztasuna aintzat hartzea

Aztertzen ari garen kasuan, **IGEen eta haien antolakuntza-egituren** eginkizuna funtsezkoa izan da elikadura trantsizioko prozesuak ikastetxeetan aurrera eramateko ekimenak garatzeko. Eskola jantokian eskaintzen den zerbitzuaren eta menuen kalitateari buruzko kezka etengabea izan da kolektibo horietan. Zerbitzuaren beharrei erantzuteko eta elikadura-eredu osasungarriago eta iraunkoragoetara igarotzeko, IGE gehienek eta ikastetxeek berek jantokiko batzordeak sustatu dituzte. Kasu batzuetan, elikadura batzordeak ere sortu dira, jantokiko kudeaketa ez ezik, gainontzeko elikadura une eta eremuak lantzeko helburuz.

Hala, ez ditugu **gainontzeko familiak** alde batera utzi behar, elkarrekin sartuta ez badaude ere. Ondo ezagutzen dugu familia esparruak elikadura ohituretan eta jarraibideetan duen eragina. Elikaduraren arloan ditugun jokabideak janariarekin dugun esperientziari lotuta daude. Baina argia da etxean ematen diren ereduak oso garrantzitsuak direla, eta eredu horiek ere gizarte estatusaren, kultura tradizioen eta elikagaien eskuragarritasunaren eragina dute. Hortaz, oso beharrezko ikusten dugu familiei arreta ematea, bidelaguntza, sentsibilizazioa eta prestakuntza uztartuz; izan ere, horiek estrategia egokiak izan daitezke familien eskaerak bideratzeko eta, ahal den neurrian, familiaren elikadura elikadura-trantsizioko prozesu horietara egokitzeko.

Baina, beste subjektu batzuen rola ere garrantzitsua izan da. Horixe da ikastetxeetako **zuzendaritza-talde**en kasua. Hain zuzen ere, talde horiek eginkizun garrantzitsua dute elikadura-osasungarri, bidezko eta iraunkor batekin konprometitzeko eta helburu hori gauzatzeko protokoloak eta proiektuak sustatzeko. Zenbait kasutan –autonomia erkidegoaren arabera–, zuzendaritza-taldeak dira jantokia kudeatuko duen enpresa aukeratzeko erabakiak hartzen dituztenak. Halaber, catering enpresekin harremana izateko arduradunak dira, eta eskola-komunitatearen eskakizunak horiei helarazten dizkiete [IGEarenak ere]. Nolanahi ere, zuzendaritza-taldeen familien parte-hartzea sustatu behar dute eskola bizitzan eragiten duten erabakietan, eta etengabe

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

harremana izan behar dute jantokiko batzordearekin —edo elikadura batzordearekin, horrelakorik balego—, familien eskakizunak bideratzeko eta, jakina, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, oro har.

Jantokiko arduraduna. Batzuetan irakasleei egokitzen zaien kargua da, eta horretarako orduak liberatzen zaizkie. Baina ez da beti horrela, eta alde handia dago lurraldez lurralde. Zenbait kasutan, zuzendaria da kargu hori betetzen duena. Nolanahi ere, hura figura nabarmena da, elikadura onaren dinamizatzaile gisa egin dezakeen lana oso garrantzitsua baita. Haren eginkizunak erkidegoz erkidego aldatzen badira ere, oro har, jantokiko arduraduna honako hauetaz arduratu behar da: jantokia koordinatzeaz eta bere funtzionamendua ikuskatzeaz; menuekin lotutako guztia antolatzeaz —horiek diseinatzeaz, horiek kontrolatzeko eta hobetzeko proposamenak egiteaz...—; eta gastua eta zerbitzuari esleitutako aurrekontua kontrolatzeaz. Baina beste eginkizun garrantzitsu batzuk ere hartu beharko lituzke agian. Esate baterako, jantokiaren eremuari hezkuntza ikuspegi bat aplikatzeko. Apustu horretan ekintza plan bat egiteko aukera egon daiteke, elikadura ohitura osasungarriak sustatzearekin hasi eta elikagaien, ekosistemen, klima aldaketaren, baserri eremuaren eta gizarte osoaren ongizatearen arteko lotura estua ezagutzearaino.

Irakasleen eginkizuna nabarmendu nahi dugu elikadurari buruz egin daitekeen lanketa hezigarria eta pedagogikoari dagokionez, hura curriculumean txertatzeko. Elikadura-trantsizioko prozesuak ikasleen prestakuntzaren eta gaikuntzaren bitartez lagundu behar dira; hain zuzen, elikadura-hezkuntza on bat jasotzearen onurei buruzko prestakuntzaz ari gara. Estrategia horrek dieta osasungarriagoak hartzea erraztuko du, eta gainera elikadura burujabetzan oinarritutako elikadura-ereduak zabaltzearen onurak eta horiek errazteko izan dezakegun rola ulertzeko aukera emango du.

Ikasleak. Prozesu hauen protagonistak dira eta berezko esperientzia dute elikaduraren arloan. Ikasleekin aldez aurreko diagnostiko-lan bat egin behar dugu, haien elikadura ohiturak eta honako hauen inguruan duten ezagutza identifikatzeko: elikadura-ereduak, produktu motak, jatorriak, eta elikagai kilometrikoak eta agroindustrialak kontsumitzeak dituen ondorio negatiboak, baita sasoiko eta gertuko produktu fresko eta ekologikoak kontsumitzeak haientzat eta tokiko sistementzat duen eragin positiboa ere. Funtsezkoa da ikasleei entzutea, ikastetxeko jantokiaren erabiltzaile gisa duten esperientziari buruz galdetzea, haien kexak eta proposamenak jasotzea [horietako asko errepikatzen dira ikastetxez ikastetxe eta lurraldez lurralde] eta dagokien balioa ematea. Horrek eskola jantokiak hobetzeko ditugun eskakizunak ere legitimatzen laguntzen digu.

Sukaldeko eta jantokiko langileak. Jantokiko zerbitzuaz arduratzen diren funtsezko bi kolektibo dira. Eginkizun desberdinak dituzte, baina funtsezkotzat hartzen ditugu izan dezaketen hezkuntza eginkizunagatik, eremu horiek kudeatzeko arduraz gain. Hezkuntza-eginkizun hori zabala izan daiteke: higienezari edo elikadura-ohitura

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

egokiak hartzeari buruzko oinarrizko ikaspenetatik hasi eta kontu sakonagoetaraino, hala nola kontsumitzen dituzten elikagaiak, nutrizioari lotutako kontuak eta inguruan eta lurraldearekin harremanean ekoizten diren elikagaiak ezagutzea; edota kultura aniztasunarekin eta, areago, zaintzekin, iraunkortasunarekin, elikadura eskubidearekin eta horrek gizarte justiziarekin eta ekitatearekin duen harremanarekin lotutako alderdiak ere.

Nutrizionistak. Nutrizioaren arloko profesionalak menua diseinatzean duten eginkizuna funtsezkoa da elikadura-trantsizioko prozesuan lortu nahi diren irizpideak txertatzeko. Nutrizio irizpideetatik harago –lurralde batzuetan horiek ezartzen dituzten gomendioak edota dekretuak dituzte–, ezinbestekoa da sasoiko eta gertuko produktu ekologikoa kontuan hartzea menua diseinatzekoan.

Eragile horiek guztiak [eta beste batzuk, hala nola fisioterapeutak, logopedak, psikologoak...] funtsezkoak dira elikadura-ereduen aldaketa kontzientea bultzatzeko eta eredu berriak sustatzeko eginkizun arduratsua eta aktiboa hartzeko orduan.

- » Gure erakundea osatzen duten eragileak eta subjektuak identifikatzea, horiek elikadura-trantsizioko prozesuetan dituzten konpromisoak, eginkizuna eta ardura noraino iris daitezkeen ikusteko.
- » Subjektu desberdinek izan ditzaketen ardura zehatzez edo eginkizun aktiboaz harago, guztiak artatu behar dira, informazioa emanez, haien gaitasun kritikoak garatuz edo aldaketaren eragile gisa duten eginkizuna indartuz.
- » Eragileek osatutako taldeez gain, Jantokiko arduradunaren eginkizuna har dezakeen figura bat izatea komeni da. Hark eskola jantokien kasuan aipatu ditugun horien antzeko eginkizunak izango ditu.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

5.3.1.2. Ikastetxeetan prozesuak dinamizatze

Erabaki organoetan parte hartzea. Jantokiko batzordeak edo elikadura batzordeak ikastetxeko erabakitzeko eremu ofizialetan ordezkatuta egon behar dute, baita maila handiagoko eremuetan ere, hala nola Eskola Kontseiluan. Hori ikastetxe bakoitzaren araudiaren menpe badago ere, ordezkari batek Eskola Kontseiluan parte hartzeko aukera egon ohi da. Boterea duten organoekin lotura egotea garrantzitsua da komunikazio eraginkorra dagoela eta erabakiak adostuak direla bermatzeko, ikastetxeko elikaduraren problematikaren inguruan edo bultzatu nahi diren aldaketei dagokienez.

Halaber, beharrezkoa da **eskola-elikaduran lan egiteko** sortzen diren **eremuak** errespetatzea. Horiek, batzuetan, IGEaren eremuekin paraleloan doaz. Garrantzitsu ikusten dugu lantaldeen artean sinergiak eta adostasunak sortzea. Izan ere, elikadura-eremuak hezkuntza-eremutat hartzeak eta elikadura bidezkoa, osasungarria eta iraunkorra modu pedagogikoan lantzeko eta curriculumean sartzeko proposamenak sinergia horiek bilatzeko interesa handitzen dute.

Halaber, garrantzitsua da lurralde bakoitzeko lege eta araudiak ezagutzea eskubide jakin batzuk aldarrikatu ahal izateko, hala nola familiek eskola jantokian sartu ahal izatea. **Araudiak**, legeak eta abagunea **ezagutzeak** nolabaiteko babesa ematen die trantsizioko prozesuen sustatzaileei, ikastetxeek edo zuzendaritza-taldeek hori errazten ez duten kasuetan.

Jantokiko batzordeak bistaratzea, hau da, horiek egiten duten lana, lortutako aldaketak edo sustatuko direnak, eta beti komunitatearentzat duen interesetik, jende berria erakartzeko eragingarria izan daiteke. Alderdi positiboak azpimarratzea beti da interesgarria familia gehiago prozesu horietara erakartzeko. Lan hori zaindu beharra dago; izan ere, normalean, batzordeak lantalde txikiak dira, eta jende gehiago sartzeko horiek berritzeko eta ikastetxeetan legitimitate gehiago izateko bermea da.

- » Batzordeak edo talde eragileak sortu behar dira erakundean dagoen elikadura-ereduaren aldaketa prozesuaren dinamizatzaile izateko. Halaber, batzorde horiek –edo horietako kideren batek– elikadura gaiei –governantza sistemari eta erosketari publikoari– buruzko erabaki organoetan parte hartzea komeni da.
- » Prozesua dinamizatzeaz arduratzen diren pertsonak ondo ezagutu behar dituzte elikadura gaiei dagozkien legeak eta araudiak. Hala, beren proposamenak hobeto legitimatu ahal izango dituzte eta egingo diren eraldaketen faseak eta ekintzak planifikatu ahal izango dituzte.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.3.1.3. Prozesuan sortzen diren zailtasunak subjektuei dagokienez**

IGEen aldakortasuna. Familiak IGEetan duten parte-hartzea beren seme-alabak matrikulatuta dauden aldietara mugatzen dira. Horrek esan nahi du elkarteko kideak aldatu egiten direla ikasleak lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzara igarotzen direnean. Oso prozesu zabalak direnez, elikadura-ereduaren aldaketa lortzeko borroka haur hezkuntzan hazten da, eta lehenengo lorpenak heltzen direnean lehen hezkuntzako azken zikloan daude eta bigarren hezkuntzara igaroko dira. Etapa horretara heltzean gogoz aritu diren pertsona asko nekatuta daude eta, maiz, elkarrekin uztan dituzte. Gainera, lan zaila da eta denbora eskatzen du prozesu administratiboak, baldintza-agiriak, gestioak, erreklamazioak edo ez-betetzeei erantzuteko prozesuak nola funtzionatzen duten ulertzeko. Beti ez da erraza erreleboa hartuko duen eta borrokarekin jarraituko duen jendea aurkitzea.

Frustrazioa. Aipatu dugun bezala, elikadura-trantsizioak prozesu luzeak behar ditu. Horiek hainbat eragile nahasten dituzte eta hezkuntza komunitatean adostu, planifikatu eta gauzatu beharreko hainbat ekintza aurkitzen ditugu. Normala da bide horretan zailtasun eta oztopo desberdinak agertzea. Aldaketen aurkako erresistentziak gainditzeko eta agertzen diren arazo guztiei erantzuteko ahaleginak motibazioa galtzea eta nekea eragin diezaieke gogo eta inplikazio handiagoz dabilen pertsonen. Gainera, denbora falta dugu; izan ere, kasu askotan, prozesuetan parte hartzen duten horiek beste eremu batzuetan ere parte hartzen duten ama langileak izaten dira. Horregatik, inportantea da inplikazioa kolektiboa izatea, lagun bakoitzak taldean babesa duela sentitzea, eta lorpen txiki bakoitza behar bezala aintzat hartzea, baloratzea eta ospatzea.

Koordinazio-egituren konplexutasunak. Normalean, IGEak egitura handiagotan taldekatzen dira. Horrek hezkuntza administrazioekiko elkarriketa errazten du eta eskaera globalagoak batzeko balio du [eskola publikoaren defentsa, eskola porrotaren aurkako borroka, erabateko eskolarizazioa, mugikortasuna, garraioa...]. Halaber, beste eginkizun batzuk ere hartzen dituzte, hala nola elikadura eskubide gisa aldarrikatzea edo jantokiko zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eskatzea, besteak beste. Dena den, hain egitura handiak izanda, maiz, konplexuak izaten dira eskaera horiek koordinakundeen eta federazioen/konfederazioen bitartez bideratzeko prozesuak, baita haien arteko elkarriketa ere, hain zuzen, barne zailtasunak dituztenean edo batzordeetan aldaketak daudenean.

Zuzendaritza-taldeetako aldaketak. Zuzendaritza-taldeetan aldaketak daudenean, ez badira elikadura-trantsizioko prozesuan izandako aurrerapenak modu organikoan integratu, berriz hasi behar izateko arriskua dago. Hau da, ez badira aurrerapen horiek aintzat hartu, instituzionalizatu eta dokumentuetan eta estrategietan sartu, eta ez bada horiek ikastetxearen kultura blaitzeko denbora nahikorik igaro. Jakina, hori oso egoera frustragarria da. Batez ere, elikadura bidezkoa, osasungarria eta iraunkorra lortzeko beste esperientzia batetik zatozenez eta, horretan, konfiantzazko eta konplizitatezko harreman bat izan denean zuzendaritza-taldearekin.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

- » Erreleboa bermatzea. Elikadura-trantsizioko prozesuetan arduraren handiagoa hartzen duten lagunak –plangintza eta ekintza zikloi aurre egiteaz gain- prozesuan sortzen diren zailtasunak eta erresistentziak kudeatzeko arduradunak izaten dira. Horrek, epe luzean, nekea eta motibazioa galtzea eragiten du. Garrantzitsua da txandakate-mekanismoak eta batzordeetako eta talde eragileetako kideak berritzeko epe zehatzak ezartzea.
- » Aldaketak finkatzea. Interesgarria da lorpen txiki bakoitza aintzat hartzea eta instituzionalizatzea, hau da, gure erakundearen dokumentuetan eta araudietan sartzea. Hori praktika egokia da aurreratutako berriz egin behar ez izateko; hau da, gure erakundeko zuzendaritza-egiturak aldatzekotan aurrera jarraitzeko aukera izan dezagun.
- » Esperientzia eraldatzaileen ebaluazio, sistematizazio eta komunikazio jarduerak planifikatzearen garrantzia aintzat hartzea. Hori berezia da, efektu bikoitza baitu. Alde batetik, autohausnarketa prozesuetan eta bizi izandako esperientzia baloratzeko prozesuetan murgiltzen gaitu. Hala, metaezagutza [ezagutzen dugun horren inguruan sortzen dugun ezagutza berria, esate baterako, gure praktikaren inguruan] interesgarria garatzen da, eta hura esperientzia berrietan aplikatuko dugu. Bestetik, elikadura-trantsizioko esperientzien sistematizazioak eta komunikazioak efektu biderkatzailea du; prozesuan egindako ikaspenak beraganatzeko eta aplikatzeko aukera ematen die beste kolektibo batzuei.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.4. SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO EKINTZAK**

Inplikaturako eragileak sentzibilizatzeko eta mobilizatzeko estrategiak. Garatutako prozesuak ezagutzera emateko komunikazio-estrategiak...

Aztertzen ari garen prozesu hauek aurrera eramateko funtsezkoa da sentzibilizazio estrategiak diseinatzea. Prozesu horietan beharrezkoak diren aldetetan inplikatze, kontzientzia kritiko bat garatu beharra dago. Kontzientzia kritiko horrek gaur egungo elikadura-ereduaren ondorioak ezagutzeko eta ebaluatzeko aukera emango digu. Beraz, izaera politikoagoa ematen diegu sentzibilizazio-ekintzei; izan ere, horiek, denbora luze, informazio-erakunde zentralatu dira nahi den eragina lortzera bideratu beharrean. Horren ondorioz, estrategia ez da behar bezala moldatu lan egiten dugun taldeetara.

Sentsibilizazio-jardueren bitartez, elikaduraren problematikari buruzko kontzientzia kritikoa piztu nahi dugu. Hobeto informatutako herritarrek lortzeko estrategia bat da; hau da, gure elikaduran eragiten duten arazoaren jatorriak ulertzeko gai direnak, tokiko ikuspegi batetik zein ikuspegi global batetik. Ulertu behar dugu elikaduraren arloan hartzen ditugun erabakiek gure tokiko testuingurutik kanpo ere eragina dutela. Pertsonen osasunean eragiten dute, beren elikadura-eskubideak erabiltzeko duten gaitasunean, baina baita —ekoizleak kontuan hartzen baditugu— beren ekonomian eta eskubideetan ere. Beraz, bidezko elikadura-eredu bat lortu nahi dugu, emakumeek ustiatzean eta etxeetan duten eginkizuna eta egiten duten lana aintzat hartzen duena; komunitate baserriaren lan baldintzak eta baldintza ekosozialak zaintzen eta babesten dituen; tokiko ekonomiak eta ekoizpen agroekologikoko ereduak biziberritzeko berme-sistemak ezartzen dituen... Azken finean, elikadura-eredu iraunkor bat aldarrikatzen dugu. Horrekin esan nahi dugu, planetako ekosistemetan galdutako orekak leheneratuko dituzten ereduaren premia dugula, bizitzaren erreproduktzioa bere dimentsio guztietan bermatzeko bide gisa.

Kontu horietara guztietara bideratzen da sentzibilizazioa. Tokiko eta mundu mailako desparekotasunaren kausak argitu eta praktika solidarioen iturri izan nahi duen estrategia bat da. Haren helburua da herritarrek bidezko ereduarekin konprometi daitezela, hain zuzen ere, genero ikuspegiarekin elikadura burujabetzaren proposamenekin bat egiten duten eredu horiekin.

Halaber, ekintza komunikatzaile on bat zabaltzearen garrantzia aintzat hartu beharra dago. Horrek eskatzen du partekatu nahi ditugun mezuak zehaztea; diskurtsoa eta ekintzak zabaltzeko kanalik onenak identifikatzea; eta komunikazio estiloa eta edukiak moldatzea, hau da, tartean sartu nahi ditugun kolektiboen edota elikadura-trantsizioan eginkizun garrantzitsua izan dezaketan horien beharretara eta interesetara egokitzea.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

5.4.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Sentsibilizazioa eta komunikazioa estu lotutako estrategiak dira, eta horietako ekintzak funtsezkoak dira hezkuntza komunitatea elikadura-trantsizioko prozesuaz jabetzera animatzeko, behin arazoak eta horretarako mekanismoak identifikatuta.

5.4.1.1. Prozesuaz jabetzea, elikadura-trantsiziorako faktore giltzarria

IGEei bide laguntza emateko prozesuari dagokionez, ikusi dugu interesgarria dela elikadura batzordeek edo jantokiko batzordeek bere sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak diseinatzea. Hain zuzen, batzorde horiek funtsezko egikizuna dute estrategien garapenean. Testuingurua, landu nahi diren problematikak eta elikadura-trantsizioko prozesuetan sartu nahi diren eragileen ezaugarriak ezagutzen dituzte. Beraz, diskurtsoak eta mezuak haien kezka eta interesetara egokitzea funtsezkoa da horrelako ekintzek arrakasta izateko. Ikastetxeen eta familien arteko ohiko komunikazio-kanalen erabilerak hezkuntza eginkizunaren parte gisa kokatzen du elikadura-ereduari buruzko eztabaida.

- » Sentsibilizazio eta komunikazio ekintzak estrategikoak dira elikadura problematikari buruzko informazioa errazteko eta elikadura-trantsizioko prozesuetan ditugun erantzukizunetara arreta erakartzeko, indibidualetara – elikaduraren arloko jokabideak eta ohiturak– zein kolektiboetara –elikadura eraldaketa estrategikoak bultzatzea eta eragin politikoa–.
- » Eragile guztiak ordezkatzeko dituen talde eragile bat egotea. Organo hori funtsezkoa da, ez soilik prozesua dinamizatzeko, baizik eta sentsibilizazio eta komunikazio estrategiak erreferentziazko komunitatearen interesetara eta beharretara egokitzeko ere.

5.4.1.2. Sentsibilizazio eta komunikazio prozesuetan xehetasunak zaintzea

Komeni da sentsibilizazio-prozesuak nola garatuko ditugun elkarrekin pentsatzeko denbora izatea, eta nolakoak izango diren komunikazioaren elementu garrantzitsuak, hau da, gure mezua tartean sartu nahi dugun xede-taldera helarazten eta horretan positiboki eragiten lagunduko digutenak. Eta hori estereotipoetan jausi gabe egitea, elikaduraren zeharkako baina funtsezko alderdiak bistaratzeko asmoz, hala nola ardurakidetzeta edo ingurumen iraunkortasuna.

Gure kasuan, kanpainak, leloak, logoak, diseinu grafikoak, baliabide dokumentalak eta audiobisualak, erakusketak edo kartelak elikadura eta/edo jantokiko batzordeekin batera egin dira. Haiek zehaztu dituzte ikastetxeko familien izaera, elikaduraren problematikari buruz duten ezagutza maila, elikadura-trantsizioan aurrera egiteko beharrezkoak diren aldaketak onartzeko eta sustatzeko prestasuna, etab.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

Hortik abiatuta, hobeto planifikatu ahal izan ditugu ekintzak, eta programarekiko konpromiso bat lortzeko potentzialtasun handiagoa zuten horiek aukeratu ahal izan ditugu. Adibidez:

- Familiekin batera plater dastaketa egitea, proposamenak zuzenean ezagut ditzaten horiek jantokiko menuan sartu aurretik.
- Tokiko ekoizleak [jantokiaren hornitzaileak direnak edo izango direnak] aurkeztea eta haiekin hitz egitea¹² Jarduera horri esker, tokiko eta sasoiko produktu ekologikoa kontsumitzearen garrantzia nabarmendu ahal izan da, eta ezagutu ahal izan ditugun pertsonen lana laguntzen ari garela sentitzeko aukera izan dugu, eta horrek harremana indartzen eta gure konfiantza handitzen du.
- Infografiak zabaltzea, datu eta proposamenekin [ikus 2. eranskina].

¹² Ikus, adibidez: <https://justiciaalimentaria.org/todas-las-experiencias-que-hemos-visitado-nos-han-demostrado-que-a-traves-de-los-comedores-escolares-podemos-generar-transformacion-social/>

Aipatu beharra dago kasu gehienetan IGEek ez dituztela berezko komunikazio kanalak eta/edo tresnak. Bai izaten dute tarteren bat ikastetxeen web orrialdeetan [maiz, horiek ez daude oso eguneratuta]. Hala ere, IGEaren berezko komunikazio tresnak sortzea izango litzateke egokiena, hala nola web-orrialde edo webgune bat. Horietan, ikastetxeetan elikaduraren arloan egindako eraldaketa-prozesuak bistaratuko lirateke.

- » Mezu kritikoak, ulergarriak eta zuzentzen ari garen horiei egokituak zabaltzea, ikuspegi ekofeminista batetik pentsatuta daudenak. Horiek funtsezkoak dira sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko. Elikadura-sistemen funtzionamendua ezagutu eta ulertu behar dugu, aldatzeko ekintzekin konprometitzeko.
- » Taldearentzat interesgarriak diren gaiak lantzea; haien kezka, behar eta interesekin konektatzen dutenak.
- » Pertsonoi eta planetari kalte egiten digun sistemaren iraupenean dugun erantzukizuna azpimarratzea; ez errudun sentitzeko, baizik eta elikaduraren arloan hartzen ditugun erabakiak birpentsatzeko eta horiek gure inguruan eta harago eragin positiboa izan dezaketela ulertzeko.
- » Tokiko-global ikuspegia barneratzea eta gure bizitzak lotzen dituzten interdependentzia eta ekodependentzia harremanak erakustea. Izan ere, horiei esker, gure elikadura-ereduak hemen aldatzeak eragin positiboa du beste lurralde eta komunitate batzuetan.
- » Irudi positiboak erakustea. Horrek ez du esan nahi gaur egungo elikadura-ereduaren eragin negatiboak erakutsi behar ez direnik, baina, ikuspegi pedagogiko batetik, askoz interesgarriagoa da eraldaketarako dauden aukerak eta aldaketak egiteko dugun boterea nabarmentzea, batez ere kontzientzia hartzen dugunean eta kolektiboki antolatzen garenean.
- » Edukietan genero ikuspegia eta ikuspegi feministak sartzea, baita irudietan eta hizkeretan ere.
- » Hizkera teknikoak sentsibilizazioaren eta komunikazioaren helburu diren taldeetara egokitutako diskurtsoetara moldatzea.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

- » Aniztasuna naturalizatzea.
- » Gizonei, mutilei eta aitei elikaduran eta zaintzan aktiboa, berdintasuneko eta ardurakidea den eginkizuna ematea.
- » Batzuetan, komenigarria izan daiteke logoak, sinboloak edo pertsonaiak sortzea, proiektuak eta ideiak identifikatzen laguntzeko. Hala, jendeak horiek elikadura-trantsizioko prozesu jakin bati lotutako “marka” gisa ikus ditzake.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.5. PRESTAKUNTZA, EZINBESTEKO ESTRATEGIA**

Prestakuntza beharrak identifikatzea, egokitutako prestakuntza programak elkarrekin egitea...

Prestakuntza ezinbesteko estrategia da elikadura-trantsizioko prozesuak indartzeko, funtsezko bi prozesutan eragiten duelako: problematikari buruzko ezagutza hobetzen du eta esku hartzen duten subjektuen gaitasunak indartzen ditu.

Prestakuntzak, halaber, elikadura bidezkoa, osasungarria eta iraunkorra izateko eskubidearen aldeko diskurtsoa hobetzen laguntzen du; hain zuzen ere, kulturaren oso finkatuta dauden mitoak, sinismenak edo estereotipoak zalantzan jartzen dituelako. Izan ere, ezagutza espezializatuago batek bakarrik du horiek zalantzan jartzeko gaitasuna. Mitoen horien adibide gisa, elikadura iraunkorrakoak nutriente gutxiago dituelako ideia edo modu iraunkorren jatea garestia delako ustea ditugu.

Prestakuntza on batek fenomenoaren eta problematiken arteko interkonexioa errazten du, eta, hortaz, honako hauek identifikatzeko baldintza hobeak eskaintzen dizkigu: zeintzuk dira egin beharreko aldaketak, eta horietako zeintzuk daude gure esku eta zeintzuk behar dute beste eragile batzuek parte hartzea.

Baina, gainera, ikuspegi konplexuago, holistiko eta zeharkako hura lagungarria da elikadura-eredu bakoitzaren ondorioak ikusteko, pertsonen osasunean dituzten inpaktuez harago. Eta elikadurak krisi ekologikoarekin duen kausalitate harremanaz gain, beste hauekin duen loturaz ere ari gara: eskubideen urraketak –emakumeen, baserriarren eta elikagaien industriako langileen eskubideenak, besteak beste–, lan-baldintza prekarioak, lurra desjabetzea, edo baserriarren lekualdatze behartuak.

Hau da, elikaduraren problematika irizpide etikoetatik eta gizarte justiziako irizpideetatik lantzeko aukera ematen digu. Halaber, ikuspegi intersektionalak aplikatzen laguntzen digu, eta, horiei esker, zapalkuntza-ardatzak [sexua, generoa, etnia, klasea, adina, sexu orientazioa...] gurutzatzearen ondorioak erakusten ditu.

5.5.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Gure kasuan, elikadura-hezkuntza hobetzera bideratu da prestakuntza, baina elikadura-eredu berria proiektu politiko eta sozial berri batekin ehuntzeko egokitzat jotzen ditugun beste alderdi batzuk alde batera utzi gabe. Beste elikadura-eredu batzuetara igarotzeko prozesuek bestelako gizarte-eredu batzuekin bat egin behar dute; hau da, inklusioa aintzat hartzen eta sustatzen duten, ahalduntzea eta parte hartzea errazten duten, eta berdintasunean eta ardurakidetzan sakontzen duten eredu horiekin. Eredu horiek, bada, benetan demokratikoak diren gizartearen eraikuntzari egin dioten ekarpena aintzat hartu beharko dute, demokrazia zentzu erradikalean ulertuta¹³.

¹³ Demokrazia erradikalak herritarren parte-hartzea boterearen oinarri gisa kokatzen du, horrek esan nahi du herritar guztiek –inolako salbuespenik gabe– eskubide hori erabiltzeko gaitasuna, informazioa eta kanalak bermatuta izan behar dituztela. Demokrazia erradikala, ekitatearen printzipioan oinarritzen da. Horrek zapalkuntza egitura guztiak –kapitalismoa, patriarkatua, arrazakeria– ezabatzea eskatzen du, printzipio hura betetzeko.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

5.5.1.1. Taldeen beharrei eta interesei egokitutako prestakuntza

Kontuan hartu beharra dago prestakuntza-programek aldaketa eta eraldaketa prozesuetan parte hartzen duen taldeen interesei erantzun behar dietela. Ezinbestekoa da prestakuntza horien ezaugarrietara eta beharretara moldatzea, saioei eta programei zentzua emateko. Abiapuntu horretatik aukeratuko ditugu edukiak, irakasle taldeak, metodologiak, praktikak eta partekatuko ditugun esperientziak.

- » Irakasle taldean hainbat arlotako espezialistak izatea [nutrizionistak, erosketa publikoan adituak...].
- » Posible denean, berdinaren arteko prestakuntza erraztea [adibidez, sukaldarien artean].
- » Teoria guri entzuten ari diren pertsonen errealitateekin eta funtsezko beharrekin lotzea.
- » Edukiak, metodologiak, praktikak eta esperientziak prestakuntzan parte hartzen duten taldeetara egokitzea.

5.5.1.2. Kultura eta hizkuntza aniztasuna zaintzea

Kultura eta hizkuntza aniztasuna aintzat hartzea –are gehiago, Espainiako Estaturako bezalako kasuan, non aniztasun hori ez dagoen beti bermatuta– bidelaguntza emateko egiten ditugun prozesuen oinarrian dauden printzipioetako bat da, eta horien barruan, prestakuntza prozesuena ere.

- » Posible denean, prestakuntza autonomia erkidegoetako bi hizkuntza ofizialetan ematea. Prestakuntza hizkuntza bietan ematea posible ez bada, gutxienez material didaktikoa eta aurkezpenak formatu elebidunean eskaintzea.
- » Sustatzen diren ikastaroetan edo tailerretan parte hartzeko denborak zaintzea, bai datei dagokionez, bai egunei eta ordutegiari dagokionez ere. Prestakuntza horiek parte-hartzaileek dituzten lan ordutegiarekin eta zaintzako ardurekin bateragarri egitea da gakoa.
- » Beti parte-hartzaileen alde aurreko ezagutzetatik abiatzea.
- » Landuko ditugun gaiari buruz dituzten ekarpenak, esperientziak eta jakintzak entzutea.
- » Diskurtsoak eta mezuak moldatzea eta hizkera ulergarria erabiltzea –batez ere gai astunak badira, araudien, legeen eta baldintza-agiriaren kasuan bezala...–.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.5.1.3. Alternatibak daude**

Prestakuntzak, lehen aipatu dugun bezala, elikaduraren problematikaren ezagutza hobetzera zuzenduta daude, eta parte-hartzaileak aldaketaren eragile gisa prestatzera. Programa, edukiak eta metodologiak helburu horietara bideratzea bezain garrantzitsua da trantsizioko dinamika horietan sartzeko ditugun alternatibak lantzeko saio bat edo batzuk egitea. Eta hori beti bi mailatan egitea, gutxienez.

- Maila indibiduallean, prestakuntzak aukera eman behar digu gure elikadura eta kontsumo ohiturak aztertzeko, eta gure egunerokoan elikadura osasungarriago eta iraunkorrago batera igarotzeko orain sar ditzakegun aldaketak zehazteko.
- Maila kolektiboan, momentu ona da trantsizioko beste esperientzia kolektibo batzuekin kontaktuan jartzeko, eta ikusteko prozesu horiek nolakoak izan diren, zer oztopo agertu diren eta zer estrategia erabili dituzten horiei aurre egiteko eta horiek saihesteko, zein izan den egindako aldaketen izaera eta zer ibilbide jarraitu duten eraldaketa sakonagoak lortzeko.

Alternatibak lantzea funtsezkoa da pertsonak motibatuzeko, eredu aldaketa posible dela bistaratzeko eta eraldaketa prozesu horietan zer eginkizun dugun zehazteko. Azken batean, aldaketa-ekintzak proposatzen direnean agertu ohi diren galdera horiei askotariko erantzunak ematen saiatzeaz ari gara. Oso laburbilduta, galdera horiek honakoak izaten dira: “Baina benetan alda dezakegu elikadura-eredua gure erakunde/eremuan? Zer egin dezaket nik?”.

- » Izan daitezkeen alternatibak erakustea, mailaka –gauza puntaletatik egiturazko dimentsioetara– eta maila pertsonalean eta kolektiboan.
- » Antzeko esperientzien lekukotzak biltzea eta aurkeztea, gureaz bestelakoak diren eremuetan gertatu badira ere [ikastetxeak, jantoki kolektiboak, gazte kanpamenduak, aisialdia...], inspiratzailea eta motibagarria da aldi berean.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

5.6. ERAGIN POLITIKOA

Gure elikadura-trantsizioko prozesuak maila handiagoko sareetan/plataformetan sartzearen garrantzia, eta gure eskaerak elikadura bidezko, osasungarri eta iraunkorreko politika publikoak sustatzeko ardura duten erakundeetara eramatearen garrantzia.

Eragin politikoaren helburu nagusia, bere izenak argi adierazten duen bezala, instituzioetan —edo eragiteko ahalmena duten egituretan— eragitea da, elikadura-sistema iraunkorrak [agroekologikoak, tokikoak] susta ditzaten. Sistema horiek kalitatezko elikadura guztion eskura dagoela bermatu beharko dute, elikadura eskubidearen eta elikadura burujabetzaren berme gisa.

Kontuan hartu behar dugu elikagaien sektorean *lobby*¹⁴ asko dabilzala eta horien jarduera etengabeak eragin handia du gobernuen erabakietan —bai European, bai estatuan eta bai autonomia erkidegoetan—, elikaduraren arloan eta sektorea arautzen duten legeetan ere. Horretaz gain, publizitate eta marketin estrategia ugariaren bitartez publiko orokorrarengana heltzen dira, eta osasungarriak ez diren produktuen hiperkontsumoan oinarritutako kultura bultzatzen dute.

Hala, osasun publikoko politikak baldintzatzen dituzte, eta ikerketa zientifikoa bera ere. Izan ere, ikerketarako aurrekontu nahikorik ez dagoenez, *lobby* horiek finantziazio handia ematen dute [horrek, jakina, ondorioak ditu ikerketetan ere].

¹⁴ Ikus: Luengo, Víctor [2020]; VSF-Justicia Alimentaria Global [2015].

5.6.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Sare publikoko ikastetxeetako IGEEi bidelaguntza ematea erabaki dugu, ulertzen dugulako hezkuntza publikoa dela hezkuntza eskubidea eta elikadura eskubidea modu unibertsalean eta doanik bermatu dezakeena eta bermatu behar duena. Halaber, beste instituzio batzuetara jo dugu elikadura bidezko, osasungarri eta iraunkorrerako eskubidea bermatzeko politikak susta ditzaten guztiontzat; eta, gainera, egoera kalteberan dauden familiei arreta berezia eskaintzen dieten gizarte politikak ere egin ditzaten horiekin batera.

5.6.1.1. Funtsez argudiatu

Eragin politika baino lehenago, ikerketa —orokorrak, partzialak, tematikoak...— zehatzak eta eguneratuak izateak garrantzi estrategikoa du, gure ekintza legitimatzeko eta gure argudioak edukiz betetzeko.

- » Elikagaien sektoreari buruzko ikerketak izatea, gure eragin politikoko ekintzen edukia indartzen dutenak.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.6.1.2. Eskaerak argitzea eta horiei erantzuteko gai diren erakundeak edo arduradunak identifikatzea**

Instituzio edo erakunde arduradunei helarazi nahi dizkiegun eskaerak argitzea da bigarren urratsa. Fase horretan, komeni da juristen laguntza izatea, gure erakundearen erosketa publikoa arautzeko baldintza-agirien idazketari forma emateko. Jakina, nahi dugun elikadura-eredua bermatu behar duten politika publiko eta araudi horiek ez egoteak ondorioak ditu, eta ondorio horiek pairatzen dituzten pertsonen eta kolektiboen laguntzaz identifikatu eta zehatuko ditugu eskaerak.

- » Pertsona adituena laguntza izatea, kasuaren arabera -juristak, nutrizionistak...-, eskaera sendoak aurkezteko eta behar bezala argudiatzeko.
- » Eskaerak argitzea, hierarkizatzea –lehentasunaren edo premiaren arabera– eta horiei erantzuteko gaitasuna duten erakundeetara helaraztea.
- » Instituzioen barruan gure eskaerekin bat egiten duten lagunak identifikatzea, erantzukizun handiagoko egituretara eta karguetara sarbidea eman ahal digutenak, edo egitura administratibo konplexuan gida gaitzaketenak.

5.6.1.3. Kanpainak eta gizarte mobilizazioa, eragin politikoa laguntzeko estrategia bi

Egingo dugun eragin politikoko lana osatzen edo indartzen duten faktoreak daude. Horietako bat da egiten ari garen eskaeren inguruan gizarte sensibilizazioa egotea, hau da, eztabaida “kaleetan egotea”. Elikadurarekin lotutako polemikak agertu direnean honelako adibideak ikusi ditugu: haragiaren kontsumo gehiegizkoa, animalen aurkako tratu txarrak edo transgenikoen kontua. Une horiek baliatu behar ditugu gure irakurketa kritikoa sartzeko, elikadura burujabetzaren eta elikadura osasungarriaren eta iraunkorraren ikuspegietan oinarritutako irakurketa. Horrek gure estrategia indartzen lagun dezake.

Nabarmendu nahi dugu protesta eta salaketa kanpainak [eserialdiak, lapiko-jotzeak, performanceak, kanpaldiak...] betetzen duten eginkizuna ere. Eragin politikoa instituzioetara ez ezik –batez ere entzuteko prestasuna ez dagoenean– iritzi publikora eramateko erabili ohi diren ekintzak dira, oso ikusgarriak izaten baitira. Hala, eztabaida gizartean sartzeko eta gure aldarrikapenek babes handiagoa izan ditzaten lortzeko modu eraginkorra dira.

Sensibilizazio-kanpainak, horiek ondo pentsatuta daudenean eta xedetalderra bideratuta daudenean, tresna ona dira eragin politikoko prozesuak laguntzeko. Hala da gizarte mobilizazioa ere. Hura, maiz, ekimen desberdinen laguntzaren bitartez lortzen da, horiek herritar antolatuen ahaleginak batzen dituztenean eskaera jakinei babesa emateko¹⁵.

¹⁵ Ikus dokumentu honen 5.7.1. atalean jasotako plataformak eta proiektuak.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

- » Eragin politikoko ekintzekin batera sentsibilizazio kanpainak —eta, dagokionean, protesta eta salaketa ere— egitea, batez ere eztabaida politikoa sartu nahi ditugun gai horiei edo horietako bati buruz.
- » Plataforma eta sareetan antolatzea, elikaduraren problematikarekin lotutako eskaera zehatzen inguruan, eta horiekin gizarte mobilizazioko ekintzak bultzatzea, irismena eta eragina handitzeko.
- » Gizarte mugimenduek haien borrokan duten bakardadeari aurre egitea, eragileen eta erakundeen arteko antolakuntza bilatzea, alternatibak eraikitzeko helburuak partekatzeke.
- » Elikadura-eredu hegemonikoaz erabat bestelakoak diren printzipio etikoetan oinarritutako harreman eta ekoizpen moduak dituzten praktikak eta esperientziak komunikatzea.
- » Sare sozialak erabiltzea praktika eta diskurtso alternatiboak zabaltzeko eta hedatzeko.
- » Eraldatzeko ahalmena duten sormenezko komunikazio moduak erabiltzea.
- » Hainbat fenomenoren inguruan kezka erakusten ari diren —kalean eta beste eremu askotan— gazte mugimendu sozialen gizarte mobilizazioak bultzatzea eta laguntzea, hain zuzen ere klima aldaketa, krisi ekologikoa edo indarkeria matxista lantzen dituzten horiek. Mugimendu horiek, bada, giza bizitzaren eta planetako bizitzaren iraunkortasuna bermatzen duten oraina eta etorkizuna izateko eskubidea aldarrikatzen dute.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.7. BESTE PROIEKTU ETA ERAGILE BATZUEKIN ANTOLATZEA**

Beste kolektibo eta gizarte mugimendu batzuekin lan egitea, plataformetan eta proiektuetan sartzea, gizarte-ehuna indartzea.

Elikadura-trantsizioko prozesuak, oro har, motelak dira, eta helburu berberak partekatzen dituzten beste eragile batzuen parte-hartzea behar dute. Aipatu dugu dagoeneko ikastetxeetako jardueran parte hartzen duten eragileek izan dezaketen eginkizuna, baina orain lurraldeko beste eragile batzuekin lankidetzak, aliantzak eta akordioak ezartzeko beharra nabarmenduko dugu; izan ere, sentsibilizazioko, eragin politikoko eta gizarte mobilizazioko ekintza koordinatuak egin ditzakegu haiekin.

Aliantzak edo lankidetzak ezartzeko egokiak diren eragileei dagokienez, elikaduraren auziarekin harreman zuzena duten horiek nabarmendu nahi ditugu, hala nola ekoizleak, nutrizionistak, kontsumo taldeak, denda txikiak eta udak merkatuak, elikaduraren arloko kooperatibak, elkarte agroekologikoak, nekazaritzako sindikatuak, ikerketa taldeak [Kordobako Unibertsitateko *Instituto de Sociología y Estudios Campesinos -ISEC-*; Euskal Herriko Unibertsitateko *Urban Elika. Por un mejor acceso a los alimentos en los entornos urbanos*; edo *Alimentta. Think tank para la transición alimentaria...*].

Baina, beste eragile batzuek bete dezaketen eginkizuna ere aintzat hartu nahi dugu. Izan ere, horiek beste borroka batzuetan zentratzen badira ere, elikaduraren problematika lantzen lagun diezagukete, ikuspegi zabalago batetik eta elikadura burujabetzaren esparruan egokiak diren beste aldarrikapen batzuekin lotuta. Han ditugu, esate baterako, mugimendu feministak, ekologistak, eskubideen aldeko mugimenduak –batez ere pertsona migratuen edo beste kolektibo batzuen eskubideak lantzen dituztenak–, iraunkortasunaren eta klima aldaketari aurre egiteko borrokaren esparruan dabiltzan mugimenduak, ekonomia eraldatzaileekin edo ekonomia sozial eta solidarioarekin lotutako mugimenduak.

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

5.7.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Urteotan zehar, hainbat plataforma eta proiektutan sartzeko edo parte hartzeko aukera izan dugu, elikadura eskubidearekin lotutako eskaera zehatzen inguruan antolatuta. Honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

PLATAFORMAK



Alimentando Córdoba [Andaluzia]

Kordoba hirian elikadura-sistema iraunkorren eraikuntzan ibilbidea edo interesa duten zenbait erakunde batzean sortu zen, eta Milango Itunaren [2015] bultzada politikoak eta Itun horren koordinazio-mahaiaren eraketak plataforma indartu zuten. Esparru horretatik, Kordoban elikadura-estrategia osasungarria eta iraunkorra sortzera bideratutako ekintza multzo bat proposatzen dira.

<https://alimentandocordoba.es/>



Plataforma de AMPAS cordobesas Niñ@s del Sur [Andaluzia]

2017an sortu zen Kordobako ikastetxe publikoen klimatizazio-baldintzak hobetzeko helburuz antolatutako IGEen talde baten eskutik. Gaur, erreferentea da probintziako IGEentzat, eta bere lan-ildoak eskola publikoaren defentsara eta eskola-elikadura hobetzera zabaldu ditu, besteak beste. Plataforma 53 IGEk osatzen dute, eta lantaldeka antolatzen da. Lantaldeen artean Eskola jantokietako justiziaren aldeko Batzordea dago, eta bertan 23 IGEk parte hartzen dute. Hala, prestakuntzak eta sentsibilizazio-ekintzak antolatzen dituzte hezkuntza komunitatearentzat, eta eskola-jantokiak kudeatzen dituzten enpresen kontratu-hausteak salatzen dituzte administrazioaren eta iritzi publikoaren aurrean.

<https://www.facebook.com/p/Plataforma-de-Ampas-Cordobesas-Ni%C3%B1s-del-Sur-100043967245059/>

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**Red Aragonesa de Escuelas Promotoras de Salud [Aragoi]**

Aragoin osasuna sustatzen duen eskola gisa akreditatutako ikastetxeak biltzen ditu. Osasuna Sustatzen duen Eskola bat da bere hezkuntza-proiektuan osasunaren sustapena lehenesten duen ikastetxe bat, eta hezkuntza komunitate guztiek bizimodu osasungarriak hartzea errazten duena, osasunaren aldeko giro batean. Giro horretan honako elementu hauek sartzen dira: ikastetxeko antolakuntza-eredua, osasunean eragiten duten baldintzen gainean lan egitea [elikadura, ariketa fisikoa, osasun emozionala, sexu heziketa, kontsumoak, ingurumena], osasunarekin lotutako programazioa, ikastetxeak ingurunearekin duen harremana eta ikasleen bizitzarako gaitasunetan oinarritutako konpetentzien sustapena.

<https://www.aragon.es/-/red-aragonesa-de-escuelas-promotoras-de-salud-raeps-1>

**COME PÚBLICA [Aragoi]**

[Ihen Plataforma por unos comedores escolares públicos de calidad] plataforma bat da. FAPAR Aragoiko eskola publikoetako IGEen federazioarekin eta Mensa Cívica elkartearekin lankidetzan, eta zenbait adituren eta jantokietako egoera hobetu nahi duten zenbait elkarteren laguntzaz, plataformak ikastetxeekin eta familiekin lan egiten du eskola jantokiek janari osasungarria eta jasangarria ematearen alde eragiteko. Honako idea hau lantzen dute: elikadura ona ez da ahalegin bat, baizik eta hezkuntza aukera bat; eta jantokiak eremu pedagogiko eraldatzailea eta komunitate osoari irekia dira.

https://www.facebook.com/p/Plataforma-por-unos-Comedores-Escolares-P%C3%BAblicos-de-Calidad-100064546337755/?locale=es_LA

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida



Mesas. Hacia unos comedores saludables, sostenibles y justos en Castilla y León.

Ekimen eta eragileen sare hau, Entretantos, CONFAPACAL eta Justicia Alimentaria erakundeek bultzatu dute. Ekimenak, bada, eskualdeko eskola jantokien eraldaketaren alde lan egiten du, jantoki osasungarriagoak eta iraunkoragoak lortzeko. Ideia da lurraldeari lotutako eta lurraldearekin eta tokiko ekoizleekin konprometitutako jantokiak lortzea, jantokiaren hezkuntza eginkizuna aintzat hartzen eta sustatzen dutenak. Horretarako, eskualde mailako aliantza bat sustatzen ari dira, honako eragile hauen parte hartzea duena: IGEak eta familiak; ikasleak eta ikastetxeak; udalak eta auzo, gizarte eta ingurumen erakundeak; ekoizleak; eta Gaztela eta Leongo eskualdeko herrietako eskola jantokiak hobetzeko interesa duen edozein lagun edo erakunde.

<https://www.mesasquenutren.org>



Ecocomedores Extremadura. Alianza por una alimentación escolar saludable y sostenible [Extremadura]

Aliantza hau eskola elikadura osasungarria, iraunkorra eta gertukoa gauzatzeko sortu zen, eskualdeko eskoletako elikadura-sistemearekin lotutako eragile guztien arteko lankidetzaren bitartez. Ekimenaren ustez, Extremadurako eskola publikoetan ematen den elikadura osasungarria izan beharko litzateke haur guztientzat, jasangarria izan beharko litzateke lurraldearentzat eta eskualdeko elikagaien sektoretik hornitu beharko litzateke.

<https://ecocomedorex.info>



Proyecto comedores escolares de FAPA Ourense [Galizia]

Ourenseko IGEen federazioak bultzatutako ekimen finkatua eta erreferentea da. Haren helburua eskola jantokiak hobetzea da, eta, horretarako, jantoki batzuen kudeaketaz arduratzera ere heldu da, eta hobekuntza nabarmenak lortu ditu.

<https://fapaourense.es/comedores/>

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**Alimentant el futur [Balear Uharteak]**

Irabazi asmorik gabeko erakundeen sare bat da, eta Balearretako ikastetxeetan eskola-sukaldaritza kolektibo osasungarria, bidezkoa eta osasungarria eta iraunkorra sustatzeko osatu zen. Horretarako, bada, inplikaturako eragileen parte hartzea bilatu du, eta gaur egungo elikadura-ereduak gizarte, ekonomia eta ingurumen arloetan duen eraginari buruzko kontzientzia kritikoa sortzeko lan egin du, Iparralde zein Hegoalde globalean.

<https://www.alimentantelfutur.org/>

**Plataforma Escoles que Alimenten [Valentziar Herria]**

Plataformak eskola jantoki hezigarriagoa, osasungarriagoa, lurraldeari lotua, iraunkorragoa eta lehen sektorearekin konprometitu lortzeko beharrezkoak diren aldaketak erraztu nahi ditu; azken finean, parte hartzeko eta bidezkoa den jantoki bat lortzeko.

<https://escolesquealimenten.org/>

**Gure platera gure aukera [Euskadi]**

Ekimen honetan parte hartzen duten kolektiboek eskola-jantoki eredu osasungarriagoa, hurbilagoa eta bidezkoagoa aldarrikatzen dute. Jantokiak gune integral eta integratzailea izateko aldaketak proposatzen dituzte, ez soilik sukaldaritza "zerbitzu" bat. Aldaketa horiekin batera, baserri eremu bizi baten aldeko politikak egin behar direla aldarrikatzen du, sektorean sartzea errazten dutenak. Jantokiek beren balio pedagogikoa berreskuratzea nahi du ekimenak, eta haurrei eskaintzen zaizkien elikagaiak ingurunearekin eta kulturarekin bat etortzea. Hau da, elikagai kilometrikoak ekiditea eta sistemak horrek ingurumenean, gizartearen eta ekonomian dituen ondorioak saihestea.

<https://www.gureplateragureaukera.eus/eu/>

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida



Plataforma por una Alimentación Responsable en la Escuela [estatu maila]

Ekimen honek eskola-jantokien kudeaketa eredia aldatzeko lan egiten du, baita ospitaleetako, egoitzetako eta beste eremu batzuetako jantokiena ere. Plataforma 2016an osatu zen CEAPA ikasleen guraso elkartearen Espainiako konfederazioaren egoitzan egindako batzar batean. Batzarra CEAPAK berak eta Ecologistas en Acción [Madrid Agroecológico], FAMPAl Alhambra [Granada], Plataforma por unos Comedores Escolares Públicos de Calidad eta Justicia Alimentaria erakundeek antolatuta zuten.

<https://comedoresresponsables.org/>



Alianza por una alimentación saludable [estatu maila]

Aliantza honako hauek osatzen dute: Sociedad Española de Salud Pública y Administración Sanitaria [SESPAS]; Confederación Española de Asociaciones de Padres y Madres de Alumnado [CEAPA]; Coordinadora de Organizaciones de Agricultores y Ganaderos [COAG]; Confederación de Consumidores y Usuarios [CECU]; Medicusmundi; Amigos de la Tierra; Ecologistas en Acción eta Justicia Alimentaria. Aliantzak elikadura osasungarria sustatzen duen politika bat lehenbailehen garatzea eta inplementatzea eskatzen du.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

PROIEKTUAK

**Programa Algafequi Nature del CEIP Algafequi [Kordoba]**

Proposamen hau helburu batekin sortu zen, hain zuzen ere, garapen iraunkorren eta osasungarrian heztea eta hezkuntza proposamen anitza eta dibertsifikatua sortzea, komunitate osoari irekia eta parte hartzeko espirtua duena. Haurren hezkuntza integralean funtsezkoak diren lau ardatzen arabera egituratzen da: hezkuntza emozionala, ingurumen kontzientzia, elikadura osasuna eta ariketa fisikoaren sustapena.

<https://sites.google.com/ceipalgafequi.com/ceipalgafequi/proyectos-de-centro/algafequi-nature>

**Cañada sana, Cañada Viva proiektuaren barruan. León Solá ikastetxeko IGEa [Melilla]**

Cañada Viva León Solá ikastetxeko IGEak ekologia eta ingurumen arloan garatzen duen gizarte, kultura, kirol eta aisialdi programa ekofeminista da. Bestalde, Cañada Sana ekimenak elikadura osasungarriagoa sustatu nahi du ikastetxearen barruan, eta, horretarako, familien lana bultzatzen du. Hain zuzen, proposamen zehatz horrekin Ramadanean zehar azukre finduak ez erabiltzea adosten dute.

<https://www.instagram.com/ampaleonsola/>

**Menorca al plat de l'escola [Menorca]**

Lurraldearen iraunkortasuna sustatzen duen ekimen bat da. Eskola jantokia ere elikadura hezkuntzako lana egiteko eremu egokia da, eskolarekin eta komunitatearekin koordinatuta. Ikasleei eta familiei menuko elikagai bakoitzaren atzean dagoen errealitatea hurbildu nahi die. Helburu nagusia da elikadurari dagokion balioa aintzat hartzea eta elikadurak giza osasunarekin eta ingurumen iraunkortasunarekin duen lotura ulertzea.

<https://menorcalplat.com/es/escola/el-proyecto/>

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida



Projecte mares y pares comensals [Cervantes HLHI, Valentzia]

Proiektu honek jantokiari dagozkion gaiak modu objektiboan baloratzea du helburu, eskola jantokiaren errealitatea familiei hurbilduz. Hori lortzeko, hamabostero, guraso batek menua eta jantokiko denbora hura partekatzen du hurrekin..
<https://cpcervantes.com/caste/la-ampa/educacion-sana/>



Projecte Cervantes sense sucre [Valentzia]

Cervantes ikastetxeko IGEa kontzientzia hartzen ari da produktu azukredunen gehiegizko kontsumoak osasunean eragiten dituen arazoengatik. Hortaz, azukre gehiegi duten produktuen [edari azukredunak, litxarreriak eta opil industrialak] eta gatz gehiegi duten horien [adibidez, hestebeteak] kontsumoa murrizteko ekimenak bultzatzen ditu. Azukrearen ondorioei buruz kontzientziatzea da helburua, eta osagai hura protagonista izan gabe saritzeko, ondo pasatzeko eta urtebetetzeak ospatzeko aukerari buruz.

Adibide hauen bitartez, plataformetan antolatutako edo proiektuen inguruan bildutako eragile antolatuekin lan egitearen interesa nabarmendu nahi dugu; izan ere, egitura horien bitartez elikaduraren problematikak landu nahi dituzte, bidezko eruedetara igarotzeko proposamenak sortzeko asmoz.

- » Lan egin edo antolatu nahi dugun eragileek darabiltzaten denbora eta erritmoetara behar bezala moldatzeko malgutasuna izatea. Harremana eta lankidetzazko erantzeko, testuinguru eta premia desberdinetara moldatzen diren topaketarako formulak bilatu behar ditugu.
- » Komunikazio-mekanismo egokiak ezartzea, proiektuen zentzua partekatu ahal izateko eta elkarrekin lan egiteko eta elkar indartzeko alderdi horiek nabarmentzeko. Batez ere eragin politikoko eta gizarte mobilizazioko ekintzei dagokienez.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.8. TRANTSIZIOKO PROZEUETAN BEHARREZKOAK DIREN BALIABIDEAK
ETA TRESNAK**

Sentsibilizazio eta prestakuntza jarduerak laguntzeko material eta baliabide egokiak izatearen interesa nabarmenduko dugu.

Hezkuntza komunitatearen eta elikadura-trantsizioan inplikaturako eragileen sentsibilizazio eta prestakuntza prozesuetan funtsezkoa da baliabide eta tresna egokiak izatea, xede-taldera egokitzen direnak. Elikadura-sistemei, haien ondorioei eta dauden alternatibei buruzko ezagutza sakona ezinbestekoa da elikadura osasungarri, bidezko eta iraunkor batera igarotzeko. Horrek, bada, beharrezkoak diren aldaketak egiteko eta helburu horretan dugun eragiletasuna indartzeko aukera emango digu.

Erabil ditzakegun materialen tipologia zabalaren barruan, elikadura-hezkuntza hobetzerantz bideratzen diren horiek ditugu, baina baita aldaketaren plangintzan gida gaitzaketen horiek edo prozesuan agertzen diren zailtasunak gainditzeko mekanismoak ere.

5.8.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Ikastetxeekin eta, bereziki, IGEekin eta elikadurarekin lotutako eragileekin dugun lankidetzari esker, baliabide espezifikoki ugari egin ditugu eta horien edukia eta diseinua xede diren taldeetara egokitu ditugu.

5.8.1.1. Informazio eguneratua izateko baliabide dokumentalak

Txostenak. Elikadura problematikekin lotutako ikerketen¹⁶ emaitzak partekatzen dituzten baliabideak. Azterketa xehatuak eskaintzen dituzte, datu eguneratuekin, eta elikadura-eredua aldatzeko ikastetxeetan egiten ditugun aldaketa proposamenak indartzeko eta legitimitatea emateko balio dute.

Baliabide didaktikoak. Familiei, jantokiko langileei, hezitzaileei eta IGEei prestakuntza emateko erabiltzen ditugun baliabide didaktikoen tipologia oso zabala eta anitza da. Baliabide didaktiko bat ekoizterakoan, jakina, gai jakin bati buruzko informazioa eta/edo ezagutzak ematea da asmoa –gure kasuan, familiako eta eskolako elikadurarekin lotutako alderdi bati buruzkoak—. Baina, horrez gain, jarduera edo proposamen zehatzak ere eskaini nahi ditugu; eragileek horiek aplikatu ditzaketen edo gutxienez etorkizunera begira horiek kontuan har ditzaten, horiek aplikatzeko unea heldu ez bada oraindik¹⁷. Estetika zaintzea garrantzitsua da; izan ere, horrek edukiak ulertzea errazten du eta xede ditugun pertsonen gehiago hartzen dituzte kontuan. Halaber, honako hauek zaintzea komeni da: materialak inklusiboak izatea, estereotiporik ez indartzea edo lankide ditugun taldeak ez infantilizatzea, eta ikuspegi ekofeminista zeharka txertatzea.

¹⁶ Ikus: <https://justicialimentaria.org/que-hacemos/investigacion/>

¹⁷ Hona hemen IGEei eta haien egitura antolatuei [koordinakundeak eta federazioak] bidelaguntza emateko prozesuaren esparruan egindako material batzuk: *Superpoderes para un mundo mejor. Una herramienta lúdico pedagógica sobre alimentación para el espacio escolar de mediodía*; *Guía para fiestas divertidas y saludables*; *Calendari de temporada del menjador escolar*; *Recetario de temporada. Comida familiar saludable y sostenible*; besteak beste. Horiek guztiak *Alimentar es educar* programaren webgunean daude eskuragarri: <https://alimentareseducar.org/recursos/>

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

Gidak. Elikadura-trantsizioa alderdi edo testuinguru jakin batean errazteko jarraibide zehatzak ematen dituzten baliabideak dira, eta beti publiko jakin bati zuzenduta daude. Batzuetan, jarduera multzo ordenatu, sekuentziatu eta progresibo bat osatzen dute; beste batzuetan, erraz egin daitezkeen ideiak edo gomendioak eskaintzen dituzte.

Ikus-entzunezkoak. Erabilera anitzeko baliabidea da eta oso ondo moldatzen da egingo dugun ekintzaren ezaugarrietara –sentsibilizazioa, komunikazioa, prestakuntza, eragin politikoa...–. Gure kasuan, bideo-ediziora jo dugu prestakuntza prozesuak laguntzeko –batez ere, autogestionatutako ikastaroetako moduluen zenbait eduki lantzeko–, baita motibazio eta sentsibilizazio ekintzak laguntzeko ere¹⁸. Azken horietan, elikaduraren problematikan adituak diren pertsonen ekarpenak eta Hegoalde globaleko eta gure inguruko lekukotzak eta esperientziak sartu ditugu.

Sasoiko produktuen egutegiak eta errezetak. Oso baliabide erabilgarria eta beharrezkoa da sasoiko eta tokiko produktu fresko eta ekologikoen kontsumoaren garrantziari buruz kontzientziatzeko, eta horiekin plater osasungarriak eta gozoak prestatzen irakasten digu. Askotan ez dakigu zer elikagai diren sasoi edo lurralde jakin batekoak, eta, hortaz, baliabide baliotsua iruditzen zaigu. Elikagaien ekoizpen-ereduak ingurumen baldintza jakinak “erreplikatzeko” ditu produktu bat urteko edozein momentutan hazteko –berotegien kasua–. Horrekin batera, supermerkatuek inportatutako elikagai kilometrikoak jartzen dituzte gure esku, eta horrek “denetarik edozein momentutan” edukitzera ohitu gaitu, eta tokiko elikagai freskoen ziklo naturalak ez ezagutzea ekarri du. Errezeten bitartez, hainbat nutrizio-taldetako elikagaiak konbinatzeko adibideak ematen ditugu; gure elikadura, bidezkoa eta iraunkorra izateaz gain, osasungarria ere izan dadin. Baliabide honek balio gehigarria du, izan ere, elikadura “kokatua” proposatzen du, lurraldearekin eta bere tradizio gastronomikoarekin lotua.

Eskuorriak, kartelak, infografiak. Baliabide sorta handia hartzen dute, menu osasungarri bat egiteko iradokizunetatik hasi eta jantokiko batzordeen bitartez eskolako elikaduran parte hartzeko gomendioetaraino.

Triptikoak. Horrelako baliabideak, oro har, ekimena ezagutzera emateko erabiltzen dira. Horietan helburuei, jarduera nagusiei eta xede-taldeen parte hartzeari buruzko oinarritzko informazioa ematen da. Komunikatzeko eta sentsibilizatzeko tresna interesgarria da.

¹⁸ *Alimentar es educar* programaren webgunean daude eskuragarri: <https://alimentareseducar.org/videos-y-podcasts/>

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**Beste baliabide pedagogiko batzuk**

Autoprestakuntza ikastaroak. Hezkuntza komunitateko eragile jakinen prestakuntza errazteko diseinatuta daude, hain zuzen, elikadura osasungarriko eta iraunkorreko ereduari buruzko prestakuntza. Modalitate honen interes nagusia ikastaroa bakoitzaren erritmoaren eta bakoitzak ahal duen denboraren arabera egiteko autonomia da. Beste alde batetik, baliabide horrek prestakuntza-diseinu sendoa eskaintzen du, eta askotariko materialak eta baliabideak biltzen eta partaideen esku jartzen ditu. Gure kasuan, zenbait ikastaro autogestionatu dugu, publiko desberdinei zuzenduta: “Escuela de familias para una alimentación saludable y sostenible”; “Curso de cocina para familias”; “Alimentación sostenible y saludable. Formación para monitoras y monitores de comedor”; eta “Curso de cocina sostenible y saludable para cocineras y cocineros”¹⁹.

Trukeak, bisitak, lekukotzak. Baliabide garrantzitsuak dira motibatuzko, baina batez ere elikadura-eredu alternatiboari buruzko esperientziak lehen eskutik ezagutzeko, beren protagonisten ahotsen bitartez. Adibideen bitartez erakusteko izaera hura oso interesgarria da pedagogikoki, zeren lurraldean bertan elikadura burujabetzako elikadura-ereduekin konprometitutako ekimenen zentzua eta balioa zentratzen laguntzen baitu.

- » Baliabide didaktikoak beharrezko tresnak dira elikadura-ereduak eraldatzeko lan egin nahi dugun testuinguruan aplikatzekoak diren estrategietako bi gutxienez laguntzeko. Hain zuzen, sentsibilizazioak eta prestakuntzaz ari gara.
- » Ezinbestekoa da egiten ditugun materialak xede diren pertsonen beharretara moldatzea, eta sustatu nahi dugun elikadura-trantsizioan pertsona horiek izango duten eginkizunari buruzko proposamenak egitea.
- » Elikaduraren problematikari buruzko ikerketak, txostenak edo azterketa xehatu eta eguneratuak izateak elikadura trantsizioko gure proposamenak legitimatzen laguntzen du. Posible den heinean, interesgarria da esku hartzen dugun sektorean aplikatzekoak diren ikerketakidentifikatzea, horien ondorioak eta gomendioak elikadura-eredua aldatzeko gure prozesua planifikatzeko gida gisa erabiltzeko.

¹⁹ Hemen eskuragarri:
<https://alimentareseducar.org/cursos>

BOST

Elikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

5.9. ELIKADURA TRANTSIZIORAKO PROPOSAMEN ZEHATZAK

Ikastetxeetako elikaduraren eraldaketak, eskala txikiko edo eskala handiko aldaketak izan daitezkeenak. Horiek erakunde subjektuaren inplikazioaren bitartez soilik lor daitezke, edota inplikazio komunitarioa eskatzen duten estrategietara igarotzen garen bitartean.

Gaur egungo elikadura-eredu globalizatuak ez ditu pertsonen eta herrien beharrak betetzen eta ondorio kaltegarriak eragiten ditu gure osasunean eta planetan. Horretaz kontzientziatzeak eredu aldatzeko ekintzak bideratzera eramaten ditu hainbat kolektibo.

Kontuan izan behar dugu gaur egungo elikadura-ereduak, elikadura eskubidea urratzeaz gain, komunitateek beren elikadurari buruzko erabakiak hartzea oztopatu egiten duela, hau da, zer eta nola produzitu eta nola merkaturatu, banatu eta kontsumitu erabakitzea. Halaber, ez du ekonomia baserritarrak eta nekazaritza familiarra bultzatzen laguntzen, nahiz eta horiek oso garrantzitsuak diren baserriko eremuak biziberritzeko eta lurraldearen babesarekiko lotura indartzeko.

Eta horixe da elikadura burujabetzaren proposamena; horrek esaten baitigu herriek elikagai nutritiboak, kulturalki egokiak, eskuragarriak eta modu iraunkor eta ekologikoan produzituak izateko eskubidea dutela, baita beren elikadura eta ekoizpen sistema erabakitzeko eskubidea ere.

Hainbat krisik –krisi ekologikoa eta krisi soziala, gure ekosistemen narriadura eta pobrezia-aren eta desparekotasunen larriagotzea eragiten dutenak– bat egiten duten une honetan, gure apustuak irizpide etikoetan, zaintzan, justizian, ekitatean eta iraunkortasunean oinarritutako elikadura-eredu baten aldekoa izan behar du.

Beste eredu batzuetara igaro behar dugulako kontzientzia gero eta handiagoa dago, eta, hortaz, gero eta esperientzia gehiago ditugu bide horretan.

5.9.1. GURE ESPERIENTZIATIK


Ikastetxeetako elikaduraren egoera eraldatzea epe luzeko helburua da. Hezkuntza komunitate sentsibilizatua eta konprometitua lortzeko, hainbat estrategia, hala nola sentsibilizazioa, prestakuntza eta eragin politikoa uztartzen dituen prozesua behar dugu. Baita ekintza-sistema bat ere, eskala txikiko eta eragin eta irismen handiagoko aldaketak uztartzen dituen, nekazaritza-eredu industrialetik urruntzen den elikadura-kultura berria eta konprometitua finkatzeko.

Gure esperientzian aukera bi horien adibideak ditugu. Alde batetik, eskala txikikoak puntualak izaten dira oro har, baina horrek ez du esan nahi garrantzitsuak ez direnik edo iraungo ez dutenik. Esan nahi du beste aldaketa batzuekin osatu behar direla. Eta, beste aldetik, eskala handikoek prozesu luzeagoak behar dituzte. Horiek jende gehiago sartzen dute tartean eta estrategia konplexuagoak eskatzen dituzte [plangintzakoak, negoziatzekoak eta adostekoak, eremuak eta egiturak erreformatzekoak...], eta horiek ere ezinbestekoak dira.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

Eskala txikia edo handia zer den, hainbat faktoreren arabera da, hala nola ikastetxeen ezaugarrien eta horien barne prozesuen arabera. Beraz, kasu batean aldaketa txikitat hartzen dena, lorpen erraza izan delako [hezkuntza komunitate osoak egokitzat hartu du], beste kasu batean eskala handikoa izan daiteke, bai erresistentzia handiak gainditu behar izan direlako, bai ados jarri behar ziren askotariko eragileen kopurua handiagoa zelako.

Ez dugu ahaztu behar horrelako trantsizioak ikastetxeetako elikadura-interakzioak ematen diren eremuetako batean edo gehiagotan izan daitezkeela.

Irudia 3 ▶Elikadura-interakzioko
eremuak ikastetxeetan.Iturria: *Alimentar es
educar* [2023].

Kasu honetan, ez da hain garrantzitsua nondik hasten garen, baizik eta gure hausnarketa ikastetxeko elikaduraren ikuspegi global horrekin bat etortzea. Hala, elikadura-trantsizioko prozesuaren plangintzak lor dezake, epe ertain-luzean, eredu aldaketak elikadura-interakzio horiek gertatzen diren eremu guztietara zabaltzea.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.9.1.1. Elikadura-trantsizioa ikastetxearen autonomiatik bertatik**

Eskola-elikaduraren arloan garatzen diren edo garatu nahi diren eraldaketetako asko aurreko pauso baten menpe daude, ia beti hirugarren eragileekin [enpresekin, adibidez] edo lege edo araudi aldatetekin lotuta. Horrelako pausoez epe ertain edo luzeko prozesuak behar dituztenez, eskola-komunitate askok beren erabakitzeke eremuetatik abiatu dituzte aldatzeko ekimenak. Eguerdia, hau da jantokiko zerbitzua ematen den unea, ikastetxe bakoitzak kudeatu dezakeen eta eduki eta balio pedagogiko eta kritikoz hornitu dezakeen eremua da. Estatuko hainbat lekutan, hala nola Euskadin edo Katalunian horrelako esperientziak daude.

Elikadurarekin [hamaiketakoak, ospakizunak, jaiak...] lotutako arau asko eskola-komunitatean bertan erabakitzen dira [Eskola Kontseilua, zuzendaritza, IGEa]. Beraz, ikastetxearen autonomiatik ere elikadura-trantsizioko prozesu desberdinak bultzatu daitezke. "Araudia aldatzen ez duten bitartean ezin dugu ezer egin" mitoa hausten ari da. Gero eta eskola komunitate gehiagok, aldaketa txikiak eginez, urrats handiak ematen dituzte.

5.9.1.2. Elikadura-trantsizioaren eskala txikiko adibideak

Eskola-jantokiak eskaintzen duen menuari dagokionez:

- Azukrea kentzea.
- Animalia jatorriko proteina murriztea.
- Frijitu gutxiago eta prestaketa osasungarri gehiago [plantzan, labean, lurrinetan...].
- Barazki gehiago [askotariko prestaketa eta aurkezpenekin].
- Lekale gehiago.
- Plater jakin batzuetan, hala nola lasagnan edo boloniar saltsan, haragiaren ordez barazkiak edo lekaleak erabiltzea.
- Arrozan, pastan eta abarretan zereal integralak hobestea.
- Produktuaren jatorria identifikatzeko gardentasun-mekanismoak.
- Gardentasun-mekanismoak menuan "BIO" terminoa erabiltzean.
- Produktuen sasoikotasuna errespetatzen duten menuak diseinatzea.
- Tokiko elikagaiak lehenestea.

Beste elikadura eremu batzuei dagokienez:

- Hamaiketako osasungarria [fruta ekologikoa].
- Jai eta ospakizunetan, edari azukredunen eta elikagai prozesatuen ordez, tokiko eta sasoiko produktuak erabiltzea, hala nola fruta ekologikoa.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida

Hezkuntza komunitatearen inplikazioari dagokionez:

- Jantokiko batzordeetan edo elikadura batzordeetan gizonak sartzea [aitak eta/edo tutoreak].
- Mahiko buruaren figura sortzea [txandakakoa], ikasleak inplikatzeko.
- Jantokiko batzordean 4. edo 5. mailako ikasleren bat sartzea.
- Gaztandegiak, lantegiak eta artisau-ekoizpeneko beste zentro batzuk bisitatzea elikagaien elaborazio eta eraldaketa prozesua ikusteko.

» Espektatibak benetako aukeretara egokitzea. Trantsizioaz ari gara nabarmendu nahi dugulako prozesu horiek, maiz, astiro doazela.

» Kontsumitzen ditugun elikagaietan eta gure elikadura ohituretan egiten ditugun aldaketa txikien garrantzia, bada, eredu izateko duten aukeran datza. Izan ere, beste elikadura ereduetara igarotzea posible dela erakusten dute eta aldaketa pixkanaka onartzeko eta barneratzeko aukera ematen dute.

5.9.1.3. Elikadura-trantsizioaren eskala handiko adibideak

Ikastetxeari dagokionez:

- Eskola baratzea egitea.
- Elikadura-eremuen erabilera hezigarria egitea.
- Elikadura-hezkuntza curriculumean txertatzea.
- Jantokiko zerbitzuaren hautaketan eta kontratazioan iraunkortasun irizpideak aplikatzea.
- Enpresaren, elikadura-batzordearen eta zuzendaritza taldearen arteko elkarrizketarako mahi bat ezartzea.

Jantokiko menuari dagokionez:

- Tokiko ekoizle ekologikoekin lan egitea.
- Menu bereziak hobetzea.
- Animalia jatorriko proteinaen kontsumoa murriztea.
- Menu begetarianoak eta beste menu batzuk [osasun, kultura edo beste arrazoi batengatik egokituak] sartzea.
- Ikastetxean pentsamoldea aldatzea, elikadura-kultura bidezko, osasungarri eta iraunkor baterako bidean aurrera egiteko.
- Familia eremuan ere aldatzea, ikastetxean egiten ari denaren harira.
- Sukaldeen kudeaketa zuzeneko eredura itzultzea, ikastetxeetan sukaldeak jarriz, edota gertu dauden eta lerro beroa duten kudeaketa publikoko sukalde zentraletan kozinatuz.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

- » Erakunde batean elikadura-eredua eraldatzeko neurriak sartzeko, beharrezkoa da erabakitzeke ahalmen handiagoa duten organoen eta egituren konplizitatea eta konpromisoa. Sentsibilizazio-estrategiek horretan laguntzen dute.
- » Aurreikusitako neurri zehatzen inplementazioan parte hartuko duten taldeen prestakuntzarako eta gaikuntzarako plan bat ezartzea funtsezkoa da.
- » Elikadura-trantsizioko plan bat ezarri beharra dago. Horretan, egoeraren diagnostiko batetik abiatuta, nahi dugun aldaketa hori zehaztu beharko dugu, eta identifikatu beharko ditugu faseak, kronograma, ekintzak, pertsona arduradunak, kontratatu beharreko zerbitzuak eta esleitutako aurrekontua.

5.9.1.4. Iraunkortasun ikuspegiaren eragiten duten beste eraldaketa proposamen batzuk

- Elikagaiekin kontaktuan dauden plastikoak eta eratorriak kentzea, bai bilgarriak edo paketeak eta bai janaria garraiatzeko eta, maiz, berotzeko ontziak [poliestirenozko erretiluak...].
- Ontziteria aldatzea, plastikozko edo petroliotik eratorritako materialez egindako tresneria ekiditeko helburuz, baita toxikoak izan daitezkeen beste elementu batzuk dituztenak ere. Horien ordez, kristalezko edalontziak, lozazko edo metalezko platerak, altzairuzko mahai-tresnak... Asmoa toxikorik gabeko materialak erabiltzea eta baxera berrerabilgarriak eta iraunkorrak berreskuratzea da, erabili eta botatzeko edo behin erabiltzeko tresnen ordez.
- Ontziratu gabeko garbiketa produktu ekologikoak erabiltzea.
 - » Beste eredu baterako trantsizioan laguntzen duen iraunkortasun ikuspegiak izaera integrala du. Ekoizpen agroekologikoko ereduari ez ezik, ingurumenean edo pertsonen zaintzan eragin dezaketen aldagai guztiei dagokie.
 - » Hainbat kontuk garrantzia hartzen dute, hala nola desazkundeko ekintza-esparru bat ezartzea [eredu kapitalistaren berezkoak diren hiperkontsumoa eta estraktibismoa murrizteko], baita honako hauetarako neurriak ere: baliabideen kontsumoa murrizteko eta horiek berrerabiltzeko, plastikoak erabiltzeari uzteko, elikagaiak alferrik ez galtzeko edo gure bizitzan eragiten duten alderdi guztietan material toxikoak ezabatzeko.

BOSTElikadura-trantsizioko
prozesuak laguntzeko gida**5.10. ELIKADURA TRANTSIZIOKO ADIBIDEAK ERAKUSTEN DITUZTEN
ESPERIENTZIAK**

Esperientzia eraldatzaileak eta ikasteko balio duten ezaugarriak biltzea.

Oso interesgarria da esperientzia eraldatzaileak identifikatzea eta aztertzea —gure kasuan, elikadura trantsizioko prozesuei dagokienez—, hainbat arrazoirengatik.

Lehenik, motibatzeko eginkizuna betetzen dutelako. Elikadura-trantsizioko esperientziek rol garrantzitsua dute hezkuntza komunitateko eragileak antzeko prozesuekin hastera animatzeko. Gainera, aldatzeko proiektu baten parte direnen artean errepikatzen den eskaera bati erantzuten diote, hau da, esparru diskurtsiboa/analitiko/teorikoa praktika zehatz batean gauzatzeko eskaerari.

Beste alde batetik, esperientziaren kontakizunak ez du helmuga bakarrik adierazten; aitzitik, prozesu osoa deskribatzen du, eta faseak, une giltzarriak, eragile nagusiak, baliabideak eta abar nabarmentzen ditu, hau da, prozesuari aurrera egiten eta ondo amaitzen lagundu dioten elementu guztiak. Baina hori bezain garrantzitsua da esperientzia jakinei begiratzean ahulguneak, oztopoak eta erresistentziak ere identifikatzen dituela, baita horiek gainditzeko edo gutxienez horien eragina murrizteko abian jarri diren estrategiak ere.

Aldi berean, eta ezaugarri horiekin lotuta, beren hezkuntza-balioa ere nabarmendu beharra dago. Esperientziek adibide izaera dute, sentsibilizatzen dute, lurraldeari lotutako praktikak garatzeko interesa erakusten dute, lan egiten den komunitateen beharrak aintzat hartzeko interesa, eta gure prozesuetan erabil ditzakegun ikaspenak sortzen dituzte.

Azkenik, komeni da erreplikagarritasunaren kontua nabarmentzea. Hain zuzen ere, hezkuntza-ikuspegi bat aplikatzen dugunez esperientzia horiek eskaintzen dituzten ikaspenen balioa azpimarratzen dugu. Baina, ez dugu alde batera utzi behar testuinguru, komunitateen eta lurraldeen ezaugarriak direla prozesua markatu behar dituztenak. Esperientziak ezin dira beren horretan kopiatu, ez du zentzurik eta, gainera, ez lukete funtzionatuko. Baina alderdi batzuk bai egokitu eta behar bezala alda daitezke, eta ezaugarri batzuk inspiratzaileak izan daitezke gure prozesuan zentzua duten beste estrategia batzuk sortzeko. Eta horrexegatik nabarmentzen dugu haien interesa.

5.10.1. GURE ESPERIENTZIATIK

Alimentar es educar programaren ekarpenetako bat izan da elikaduraren arloko esperientzia eraldatzaileak esploratzea, identifikatzea eta ezagutzera ematea; hain zuzen ere, ikastetxeetan elikadura-trantsiziorako inspiratzaileak izan daitezkeen horiek.

BOST

Elikadura-trantsizioko prozesuak laguntzeko gida

Maiz, eskala txikiko aldaketak egin dituzten esperientziak izan dira [adibidez, hamaiketakoetan, askarietan eta ospakizunetan azukrearen kontsumoa murrizteko ekintzak]. Beste kasu batzuetan, elikadura-trantsizio handiagoak egin dituzten esperientziak ditugu [adibidez, sukalde zentralako edo catering zerbitzu batetik ikastetxean bertan kokatutako kudeaketa zuzeneko sukalde batera igarotzea²⁰].


Halaber, elikadura-eremuak hezkuntza-eremu gisa lantzeko eta elikadura-hezkuntza curriculumean sartzeko ahalegina egin duten esperientzia horiek nabarmentzen saiatu gara.

IGEei bidelaguntza emateko eta horiekin lan egiteko prozesuan, oso balioetsua izan da topaketak egitea, tokikoak zein estatu mailakoak. Horietan, gure testuinguruan eta nazioartean egindako esperientzia eraldatzaileak aurkeztu dira²¹. Elikadura-eredua aldatzeko ibilbideak eta lorpenak ezagutu ahal izan ditugu beren protagonisten eskutik, eta hori oso inspiratzailea izan da familientzat eta lan egiten dugun ikastetxeetako hezkuntza komunitateentzat.

- » Esperientzia eraldatzaileak aurkeztea, askotariko ahotsak sartzea. Izan ere, praktika zehatzak ezagutzera –hurbilekoak badira hobe– motibagarria da eta beste kolektibo batzuk animatzen ditu inguruko elikadura-trantsizioak bultzatzeko konpromisoa hartzera.
- » Ahal den neurrian, inklusio praktika egokiak dituzten esperientziak hautatzea, kultura aniztasunari dagokionez, eta baita aniztasun funtzionalari edo beste edozein aniztasunari dagokionez ere.
- » Aldaketa nabariak nabarmentzea, hau da, lehen bistaratuko diren horiek. Baina ahaztu gabe trantsizioak epe ertain-luzeko prozesu bat dela eta, hortaz, espero dugun aldaketa ez dugula gauzatuta ikusiko denbora bat igaro arte.
- » Elikadura-trantsizioko prozesuen atzean dagoen ahalegina nabarmentzea, gero eta eragile gehiago tartean sartzeko, eta ahalegin hura pertsona motibatu gutxi batzuei dagokielako ideia ezabatzea.
- » Erresistentziak identifikatzea eta prebenitzea. Lagungarria da mapaketa kolektiboak egitea, eta horietan kolektibo aliatuak zein erresistentziak adierazten dituzten eta prozesuak blokeatzen dituzten horiek sartu behar ditugu. Hala, lehenengo konpromisoa indartzeko eta bigarrenen dinamika oztopatzaileak gainditzeko estrategiak gara ditzakegu.
- » Txandakatzearen kontuari eta erakunde bakoitzeko egiturek prozesu horietaz jabetzearen gaiari arreta eskaintzea. Horretarako, prozesuak eta beren etapak eta faseak dokumentatu, eta, ahal den neurrian, instituzionalizatu beharra dago, denboran iraungo dutela bermatzeko.
- » Interesgarria da ere ekimen horren pisua daramaten lagunen/kolektiboen zaintza eta aintzatespena bermatzeko sistema on bat sortzea, ekimenaren pisua pertsona bakar bati ez emateko. Batez ere, kontuan hartzen badugu prozesu horiek, maiz, latzak direla, eta emaitzak ez direla beti epe laburrean ikusten. Lorpenak ospatzeko momentuak planifikatzeak egoera hori bihurtzen lagun dezake.

²⁰ Kudeaketa zuzena da jantokiko zerbitzua ematearekin lotutako guztia ikastetxearen eskuetan egotea, dagozkion IGEekin lankidetzan. Kontzeptu horren erabileran, salbuespen bakarra Euskadi da; izan ere, bertan termino hura Hezkuntza Sailak zerbitzua catering enpresa bati esleitzeari dagokio, enpresa horrek EAEko ikastetxe publikoetan zerbitzu hori emateko ardura har dezan [gaur egun, eredu hori berrikusten ari dira].

²¹ Topaketa horien artean, Bilbon ospatutako Gozo. Eskola-elikadura osasungarri eta iraunkorrari buruzko nazioarteko jardunaldiak ditugu. <https://gozo.eus/eu>

A close-up photograph of a green tomato on a vine, covered in water droplets. The background is a soft-focus green, suggesting other tomatoes and leaves. The lighting is natural, highlighting the texture of the tomato skin and the clarity of the water droplets.

SEI
Sustatutako
aldaketen
iraupena
bermatzeko
mekanismoak

SEI

Sustatutako aldaketen
iraupena bermatzeko
mekanismoak

6. SUSTATUTAKO ALDAKETEN IRAUPENA BERMATZEKO MEKANISMOAK

Elikadura-trantsizioko prozesuetan parte hartzea, horiek garatzea eta horiekin konprometitzea bezain garrantzitsua da edozein eremu edo erakundetan sustatu diren aurrerapausoak eta aldaketak –eskala txiki, ertain zein handikoak– bermatzea, horiek finkatzeko eta denboran iraun dezaten. Hala, elikadura burujabetza feminista eta intersektionalaren esparruarekin koherentea den elikadura-eredu batek behar duen kultura aldaketari jarraipena emateko oinarri sendoa osatzen da.

Beraz, aldaketen iraunkortasuna bermatzea ezinbesteko helburu bilakatzen da, eta, horretarako, garrantzitsutzat hartzen ditugun lau kontu nabarmendu nahi ditugu.

Pertsonen garrantzia. Lehen esan dugun bezala, aldaketak sustatzen dituen subjekturik gabe ez dago aldaketarik. Horrek esan nahi du kontuan hartu behar ditugula inguru seguruek, konfiantzazkoak eta zaintzazkoak sortzeko aukera ematen duten baldintzak; izan ere, horiek pertsonen lana errazten dute eta horien balorazioa eta aintzatespena hobetzen dute. Aipatu dugu ere elikadura trantsizioak epe ertain eta luzeko prozesuak behar dituela. Iraunkortasunari dagokionez, komeni da taldeen txandakatze sistema bat ezartzea [batez ere behar diren prozesuak bultzatzeko ardura handiena duten horien]. Horretarako beharrezkoa da kide berrien harrera eta eragite mekanismoak aurreikustea eta bermatzea, kide aktiboek eta zaharrenek metatutako esperientzia sartzen diren horiekin partekatuzko, haiek izango baitira hurrengo urteetan lanarekin jarraituko dutenak.

Efektu biderkatzailea. Oso lagungarria da esperientzia eraldatzaileak ikustea, erakusten baititute beste elikadura-eredu bidezkoago, osasungarriago eta iraunkorrago baterako trantsizioak posible direla. Prozesuak bistaratzea –batzuetan beste eremu edo lurraldeetan egindakoak ere– elementu motibagarria da, gero eta lagun eta eragile gehiago erakartzeko eta inplikatzeko, eta prozesuak egonkortzen laguntzen du.

Aldaketak instituzionalizatzea. Ziurgabetasuneko testuinguru batean mugitzen gara, eta, horren ondorioz, elikadurarekin lotutako testuinguruak, politiken eta araudien aldaketek joera positiboa izaten dute batzuetan, baina beste batzuetan atzerapausoak edo zailtasunak ekartzen dizkiote gure asmo eraldatzaileari. Nolanahi ere, aurrea hartzeko estrategia bat garatzea komeni da, aldaketak instituzionalizatzeko beharrezkoak diren urratsak bermatzeko, horiek dokumentatzeko eta antolakuntza-kulturaren txertatzeko. Hala, gure erakundearen dinamikan txertaketa organikoagoa dagoen heinean, izan daitezkeen erresistentziak prebenitzeko eta lortutakoaren iraupena bermatzeko baldintza hobekak izango ditugu.

Gelditzea, atzera begiratzea eta ebaluatzea, aurrera jarraitzeko. Sustatzen ditugun prozesuei buruz hausnartzeko, horiek kritikoki berrikusteko eta ikaspen nagusiak ateratzeko astia hartzea ezinbestekoa da gure ekintzen eragina hobetzeko, gure eragiteko ahalmena handitzeko eta elikadura eremuetako aldaketa txikitatik handiagoetara igarotzen laguntzeko.



ZAZPI

Puntu eta jarrai

7. PUNTU ETA JARRAI

Dokumentu honetan, IGEi eta horien egitura antolatuei bidelaguntza emateko esperientzia bat partekatu dugu, erreferentziako ikastetxeetan elikadura-eraldaketako prozesuak sustatzeko helburua izan duena. *Alimentar es educar* programa elikadura bidezkoaren, osasungarriaren eta iraunkorraren aldeko kultura zabaltzeko eta finkatzeko modu bat izan da, guztion elikadura eskubidea bermatzeko estrategia gisa.

Elikaduraren mundu mailako problematikaren egoera aztertu dugu, eta ikusi dugu gure errealitatea elkarri oso lotuta dagoela, izaki interdepenteak eta ekodependenteak garen aldetik. Eta, hortik abiatuta, ulertu dugu helburu ditugun aldaketa horiek eragin positiboak izango dituztela Hegoalde globaletan, gure testuinguruak, lurraldeak eta bizitzak hobetzeaz gain.

Horrelako prozesuen inguruan ikuspegi hezigarria eta politiko-pedagogikoa eskaintzearen garrantzia azpimarratu dugu. Gainera, adierazi dugu hausnarketa egiteko, kontzientzia kritikoa garatzeko eta beste subjektu eta eragile batzuekin antolatzeko lanak munduari buruz dugun ikuspegian eragiten duela, eta ekintza eraldatzaileak kolektiboki bideratzeko ahalduz gain gaitzen gaituela.

Bestalde, zaintza-lanen ardurakidetzari buruzko ikuspegi feminista eskaini dugu, hau da, zaintza-lanak beren alderdi ikusgarrian eta ikusten ez den horretan [eginkizun horiez arduratzea dakarren karga mentala] nabarmentzearen eta baloratzearen garrantziari dagokionez. Halaber, berdintasunezko inplikazioa sustatu nahi izan dugu, eta emakumeen eta gizonen arteko lan-banaketa ekitatiboa. Hura lortzeko dagoen helburua da, oraindik ere.

Azkenik, esperientzia horretatik ikaspenak ateratzeko ahalegina egin dugu; izan ere, hura hezkuntza formalaren arloan mugitzen ez diren baina elikadura-eremuak dituzten beste erakunde, sektore edo erakunde batzuentzat interesgarria izan daitekeen esperientzia dela uste dugu.

Testu honen emaitzak helburu hori lortzen laguntzea espero dugu. Nolanahi ere, gure ustez, praktika eraldatzaileak ezagutzera emateak eta komunikatzeak eta prozesu horietan egindako ikaspenak partekatzeak elkar indartzen gaitu, eta guztiontzat iraunkorragoa, bizigarriagoa, eta duinagoa den mundu bat sortzeko ahalegin horretan jarraitzea animatzen gaitu.

Beraz, hau ez da puntu eta amaiera.

Ibilbide luzea dugu aurretik. Badakigu erronka garrantzitsuak eta konplexuak ditugula, baina itxaropenez egiten diegu aurre, aldaketak posible direlako itxaropenez; eta horiek sustatzeko ahalmena duten komunitate kritikoak eta antolatuak gu garela sinetsita.

Hau puntu eta jarrai besterik ez da.



ZORTZI
Erreferentzia
bibliografikoak

ZORTZI

Erreferentzia bibliografikoak

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Agència de Salut Pública de Barcelona [2021]. *Menjadors escolars més sans i sostenibles. Guia de transformació*. https://www.aspb.cat/wp-content/uploads/2021/02/MEMSS-guia-transformacio_210930.pdf

Alimentar es educar [2023]. *Espacios alimentarios escolares*. Argitaratu gabeko infografia.

CEAPA [2016]. *Estudio sobre comedores escolares y compra próxima*. https://www.ceapa.es/wp-content/uploads/2019/01/informe_comedores_escolares_y_compra_proxima.pdf

CERAI, FAPA Mallorca, Apaema, Justicia Alimentaria [2023]. *Diagnòstic dels menjadors escolars de les Illes Balears. Recomanacions per a una compra pública mes justa i sostenible*. <https://www.fapamallorca.org/diagnostic-menjadors-2023/>

Chatham House [2021]. *Food system impacts on biodiversity loss. Three levers for food system transformation in support of nature*. https://www.chathamhouse.org/sites/default/files/2021-02/2021-02-03-food-system-biodiversity-loss-benton-et-al_0.pdf

Europako Batzordea [2020]. *De la granja a la mesa*. <https://www.consilium.europa.eu/es/policies/from-farm-to-fork/>

Del campo al cole, Alimentando conciencias eta Carro de combate [2017]. *La alimentación escolar en España. Hacia un modelo más saludable y sostenible*. https://alimentarelcambio.es/wp-content/uploads/2017/02/La_alimentacion_escolar_en_Espana-Alimentando_Conciencias.pdf

Del campo al cole, Carro de combate eta SEO BirdLife [2018]. *Los comedores escolares en España. Del diagnóstico a las propuestas de mejora*. <https://www.observatoriodelainfancia.es/oia/esp/descargar.aspx?id=5587&tipo=documento>

Delgado Bahamonde, Genaro; Plataforma por unos comedores escolares públicos de calidad eta Justicia Alimentaria [2022]. *Mejorar el comedor escolar está en nuestras manos*. <https://alimentareseducar.org/recursos/mejorar-el-comedor-esta-en-nuestras-manos/>

FAMPA Alhambra, CODAPA eta Justicia Alimentaria [2023]. *Informe. Análisis de la gestión de los comedores escolares en Granada*. <https://www.fapagranada.org/informe-analisis-de-la-gestion-de-los-comedores-escolares-granada/>

ZORTZI

Erreferentzia bibliografikoak

FAO, Nekazaritza Garapenerako Nazioarteko Funtza, OME, Elikagaien Mundu Programa eta UNICEF [2023]. *El estado de la seguridad alimentaria y la nutrición en el mundo 2023. Urbanización, transformación de los sistemas agroalimentarios y dietas saludables a lo largo del continuo rural-urbano*. Erroma: FAO. <https://doi.org/10.4060/cc3017es>

FAO, Prosalus [2020]. *La política alimentaria urbana en España se somete a revisión*.

Garua, S. Coop. Mad eta Fundación Daniel & Nina Carasso [2017]. *Alimentar el cambio. Diagnóstico sobre los comedores escolares de la Comunidad de Madrid y su transición hacia modelos más saludables y sostenibles*. https://alimentarelcambio.es/wp-content/uploads/2017/03/informe_completo.pdf

IPES-Food [2017]. *Cómo entender el nexo alimentación-salud. Las prácticas, economía política y relaciones de poder para construir sistemas alimentarios más saludables*. Global Alliance for the Future of Food eta IPES-Food. https://ipes-food.org/_img/upload/files/FoodHealthNexus_Report_Spanish.pdf

IPES-Food [2024]. *Alimentos con los pies en la tierra. Los mercados territoriales como estrategia para alcanzar la seguridad y la resiliencia alimentarias*. <https://ipes-food.org/wp-content/uploads/2024/06/AlimentosConLosPiesEnLaTierraES.pdf>

Justicia Alimentaria [2020]. *Comedor escolar y alimentación en el colegio: Preguntas frecuentes de las familias*. <https://alimentareseducar.org/recursos/comedor-escolar-y-alimentacion-en-el-colegio-preguntas-frecuentes-de-las-familias/>

Lipinski, Brian [2023]. *SDG Target 12.3 on Food Loss and Waste. Progress Report*. Disponible en: <https://champions123.org/sites/default/files/2023-10/2023%20Champions%20Progress%20Report.pdf>

Luengo, Víctor [2020]. *The Price of Progress. Who Decides What You Eat?* <https://thepriceofprogress.eu>

OCU [2023]. *Alimentación en los colegios. Menús escolares*. https://www.ocu.org/-/media/ocu/resources/themes/alimentacion/menus%20escolares_informe.pdf?rev=0a8a4476-c989-4ff9-81b4-0e774b159785&hash=09DCD6C05763623351F519DEAD4B541E

Sen, Amartya [1985]. Well-being, Agency, Freedom. *Journal of Philosophy*, 82 [4]: 169-221.

<https://www.philosophy.rutgers.edu/joomlatools-files/docman-files/11AmartyaSen.pdf>

VSF-Bidezko Elikadura-EHIGE [2017]. *Eskola-jantokiak EAEn. Nolakoak diren eta nolakoak izan litezkeen: elikaduraren kalitatea, hezkuntza-potentziala eta gure ingurunearekin duen lotura* <https://www.ehige.eus/wp-content/uploads/2019/06/EU-motza.pdf>

ZORTZI

Erreferentzia bibliografikoak

VSF-Justicia Alimentaria Global [2015]. *Confiad en mí. Puertas giratorias, conflictos de intereses y amistades peligrosas entre la industria alimentaria y los organismos de salud*. https://justiciaalimentaria.org/wp-content/uploads/2021/12/informe_lobby_lobo.pdf

VSF-Justicia Alimentaria Global [2016]. *Viaje al centro de la alimentación que nos enferma*. https://justiciaalimentaria.org/wp-content/uploads/2022/01/informe_dameveneno.pdf

A close-up photograph of a textured fabric, likely a knit or woven material, showing a series of vertical, wavy ridges. The color is a warm, earthy beige or light brown. The lighting is soft, highlighting the texture and creating subtle shadows between the ridges. The fabric appears to be part of a garment, possibly a skirt or a pair of pants, as suggested by the shape of the waistband at the top.

BEDERATZI
Eranskinak

BEDERATZI
Eranskinak

9. ERANSKINA

9.1. ERANSKINA 1 [SISTEMATIZAZIO-FITXA]

**ELIKADURA-ERALDAKETAKO PROZESUETAN GURASO ELKARTEEI
ZUZENDUTAKO BIDELAGUNTZA**

DIAGNOSTIKOA					
				Harremanetarako	
Ikastetxea					
Guraso Elkartea					
Elikadura batzordea	BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>	
Jantokiko batzordea	BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>	
Sukaldea ikastetxean	BAI	<input type="checkbox"/>	EZ	<input type="checkbox"/>	
Jantokia kudeatzen duen enpresa					

Oharrak

[ikastetxea ezaugarritzen laguntzen digutenak]

BEDERATZI

Eranskinak

ESKOLA-JANTOKIAREN KUDEAKETA EREDUA**1. Kudeaketa zuzena, hauen bitartez:**

Ikastetxea [+ IGEa, dagokionean]

Udal gobernua

Gobernu autonomikoa

2. Zeharkako kudeaketa: kanpoko catering enpresa bati kontzesioa ematea

Catering enpresa bati kontzesioa ematen zaio

3. Beste eredu bat

Beste eredu bat [azaldu]

Oharrak: [sukaldea ikastetxean bertan, lerro hotza, lerro beroa...]

Zer printzipio eta irizpidetan oinarritzen da [abiapuntuaren deskribapena]:

BEDERATZI
Eranskinak

ELIKADURA EREMUAK [Zeintzuk dauden eta IGEak zeintzuk landu nahi dituen edo lantzen dituen dagoeneko]

ELIKADURA EREMUA	Lantzen dugu	Landu nahi dugu	Noiztik [Data]
Eskola jantokia			
Gosariak			
Jolas-ordua			
Askariak			
Urtebetetzea			
Eskolako jaiak			
Irteerak [txangoak, bisitak, barnetegiak]			
Eskola baratzea			
Taberna edo kafetegia			
Salmenta makinak			
Curriculuma			
Esku-hartze puntualak gelan			
Eskolaz kanpoko jarduerak			
Beste bat... Zein?			

BEDERATZI

Eranskinak

PRESTAKUNTZA

- Proiektuak eskainia
- IGEak eskatua
- Prestakuntza estandarra
- Nahieran
- Saio kopurua:

Edukiak

- Gaur egungo elikadura-sistemaren krisia
- Desparekotasunak eta elikadura pobrezia [lekualdatze behartua, landa eremua hustea, gosea, gehiegizko pisua eta obesitatea...]
- Ondorioak planetan [klima aldaketa, kutsadura, bioaniztasuna galtzea...]
- Ondorioak komunitate baserritarretan, emakumeengan
- Nondik datoz hartzen ditugun elikagaiak [elikagai kilometrikoak, nekazaritza industrialak...]
- Kontsumo arduratsua [etiketatzea, denda txikiak, tokiko ekoizleei erostea...]
- Elikadura burujabetza, zer da?
- Sasoiko, gertuko eta ekoizpen ekologikoko elikagaiak.
- Eskola jantokia [elikadura eremua, hezkuntza eremua]
- Eskola baratzea [elikadura eremua, hezkuntza eremua]
- Nutrizio osasungarria [landare jatorriko proteinak, sasoiko fruta eta barazki freskoak, elikagai naturalak edo ez oso prozesatuak...]
- Menu osasungarriak, bidezkoak eta iraunkorrak
- Genero berdintasuna eta elikadura
- Maskulinitate berriak
- Emakumeen eta gizonen arteko desparekotasuna
- Beste herrialde/eskualde/herrietako esperientziak

BEDERATZI

Eranskinak

Prestakuntzaren ebaluazioaren osteko ohar aipagarriak

BIDELAGUNTZA²²

[Proiektua aurkeztea, erabakiak hartzeko orientazioa ematea, zuzendaritza batzordeari aholkularitza ematea, ikastetxeko zuzendaritzarekin batzarrak egitea...]

[Jarduera mota deskribatzea eta baloratzea]

Oztopoak eta zailtasunak

Aurrerapenak

Lanak [egindakoak edo egiteko daudenak] eta pertsona/egitura/organo arduradunak

²² Bidelaguntza hitzak IGEekin egiten dugun lan guztia hartzen du, hau da, prestakuntza ere hartzen du. Hala ere, prestakuntza bereizirik aurkezten dugu, berezko garrantzia duelako; eta sistematizazioari begira, prestakuntzaren edukia, saio-kopuruari eta eskaera espezifikoari buruzko informazio espezifikoa bildu nahi dugu.

BEDERATZI

Eranskinak

KUDEAKETA ETA ANTOLAKUNTZA

[Batzordeen deskribapena, nork osatzen dituen, zer elikadura-proiektu duten, aurrerapenak eta zailtasunak]

Oztopoak eta zailtasunak**Aurrerapenak****BALIABIDEAK ETA TRESNAK**

[Elikadura-trantsizioko prozesua indartzeko garrantzitsutzat hartzen ditugun baliabideak hemen, horiek edozein motakoak direla ere]

BEDERATZI
Eranskinak

TRANTSIZIO PROPOSAMENAK

Eskala txikikoak

[gosariak, urtebetetzeak...]

Eskala handikoak

[jantokia, curriculumean sartzea...]

BEDERATZI

Eranskinak

KOORDINAZIOKO EDO ERAGIN POLITIKOKO EKINTZAK**Koordinazioa**

IGEaren barruan

IGEen federazioarekin

CEAPArekin

Eragina

Ikastetxeko zuzendaritza

Udala

Hezkuntza Saila

Hezkuntza Ministerioa

GURE PROGRAMAREKIKO LOTURA

[inplikazio-maila, zer bidelaguntza mota eskatzen duguten, nola baloratzen duten gure proposamena eta gure dinamizazioa...]

BEDERATZI
Eranskinak

9.2. ERANSKINA 2 [ELIKADURARI BURUZKO BALIABIDEAK]

Alianza por una alimentación escolar saludable y sostenible de Extremadura
<https://ecocomedorex.info/>

Alimentación. Elikadura-jasangarritasunare aldeko hezkuntza-sarea:
<https://redalimentacion.org/>

Alimentant el futur
<https://www.alimentantelfutur.org/>

Alimentar el cambio
<https://alimentarelcambio.es/>

Alimentar es educar
<https://alimentareseducar.org/>

Campaña por la prohibición de la publicidad de alimentos no saludables para la infancia
<https://justiciaalimentaria.org/campana/defiendeme/>

Decálogo de la Alimentación Escolar en Andalucía [CODAPA]
<https://www.youtube.com/watch?v=ficUYce5kGU>

Guía de recomendaciones para la selección de empresa de comedor escolar [CERA]
https://drive.google.com/file/d/1MUkx301m6-zlX57Swr_xHtJJVfx4OsJF/view?pli=1

Guía para la transición de la restauración colectiva. Hacia la sostenibilidad en los comedores escolares públicos de la GVA [CERA], GOSA Valencia
<https://cerai.org/guia-para-la-transicion-de-la-restauracion-colectiva/>

Hegoa. Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua:
<https://www.hegoa.ehu.eus>

Justicia Alimentaria
<https://justiciaalimentaria.org>

La compra pública de alimentos y servicios de alimentación con criterios de calidad, sostenibilidad y responsabilidad. Guía práctica para la aplicación en el País Valencià [CERA], GOSA Valencia
<https://sostenibilidadalimentaria.org/wp-content/uploads/2021/07/guia-practica-para-la-aplicacion-en-el-pais-valencia-compra-publica-sostenibilidad-alimentaria-gosa-cerai.pdf>

Mesas. Hacia unos comedores saludables, sostenibles y justos en Castilla y León
<https://www.mesasquenutren.org/recursos/>

BEDERATZI

Eranskinak

Observatorio de Corporaciones Alimentarias

<https://justicialimentaria.org/observatorio/>

Observatorio de Salud y Medio Ambiente de Andalucía [OSMAN]

<https://www.osman.es/?s=alimentacion>

¡Reclama tu mercado!

<https://justicialimentaria.org/campana/reclama-tu-mercado/>

BEDERATZI
Eranskinak

INFOGRAFIAK

Elikadura txarra

Elikadura-bilakaera

Elikadura globalizatua

Elikadura-desparekotasuna eta -pobrezia

Osasungarri jateko platera

Herri-jakintzak eta elikagai-kontsumo arduratsua

Zer egin dezakegu?

Eskualdea elikatzen duten eskola-jantokiak

Eskola-elikadurarako guneak

